



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 11

129. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kudeaketaren Azterketari buruzko 2010eko txostenean emandako gomendioen jarraipenaren gaineko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kudeaketaren Azterketari buruzko 2010eko txostenean emandako gomendioen jarraipenaren gaineko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kudeaketaren Azterketari buruzko 2010eko txostenean emandako gomendioen jarraipenaren gainekoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kudeaketaren Azterketari buruzko 2010eko txostenean emandako gomendioen jarraipenaren gaineko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (4. or.).
- III. Ondorioak (5. or.).
 - III.1. Gomendioen jarraipena (5. or.).
 - III.2. Bestelako hobekuntza-proposamenak. (7. or.).
 - III.2.1. Finantzaketa hitzarmena (7. or.).
 - III.2.2. Gobernantza (12. or.).
 - III.2.3. Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL) (14. or.).
 - III.2.4. Ikerketa (29. or.).
 - III.2.5. Administrazioako eta zerbitzuetako langileak (AZL) (32. or.).
 - III.3. Ikasleei eta titulazioei buruzko adierazleak (2009-2010 ikasturtetik 2012-2013 ikasturtera). (34. or.).
 - III.4. Aurrekontu-magnitudeen eta magnitude ekonomiko-finantzarioen bilakaera (2009tik 2012ra) (41 or.).
 - III.5. NUPek zer toki betetzen duen hainbat unibertsitate-rankingetan (49. or.).
- IV. Amaierako laburpena (53. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2009ko Foru Legearen babesean, 7/2009 zenbakiko *in voce* parlamentu-zuzenketaren bidez, Unión del Pueblo Navarro, Convergencia de Demócratas de Navarra eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek honako erabaki hau hartu zuten: "Guztizko babes instituzionala eta finantzarioa ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUP), eta haren bideragarritasun ekonomikoa bermatzea; horretarako, erabakia sinatzen dutenek lehentasunezkoztat jotzen dute Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak hitzarmena berritzea 2010-2013 aldirako, bikaintasunaren, berrikuntzaren, etengabeko hobekuntzaren eta nazioartekotzearen sustapenean oinarrituta. Gobernuaren eta NUPen arteko hitzarmen hori babesteko tresna gisa, NUPen baliabideak eta kudeaketa ekonomikoa optimizatzeko azterketa zehatz bat batera egitea proposatuko da, kudeaketaren hobekuntzan eta gastuen optimizazioan egindako aurrerapausoak unibertsitate-erakundearen beraren mesederako izan daitezen".

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganberari aholkularitza-txosten hori eskatzea.

2010eko abuztuan, Kontuen Ganberak aipatutako aholkularitza-txostena eman zuen, "Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketaren azterketari buruzkoa".

Kontuen Ganberako lehendakariak 2011. urterako programa Nafarroako Parlamentuari aurkeztu zionean, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak eskatu zioten programa horretan jarraipen-txosten bat sartzeko, non egiaztatuko baitzen NUPek noraino beteak zituen aipatutako aholkularitza-txostenak jasotako gomendio eta hobekuntza-proposamenak.

2010ean emandako txostenaren izaera eta konplexutasuna ikusita, egokitzat jo zen arrazoizko denbora-tarte bat uztea betetze-maila hori egiaztatze aldera. Hori dela eta, Kontuen Ganberaren 2012rako urteko programan sartu zen jarraipen txosten hori.

Landa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, 2012ko abendutik 2013ko maiatzera. Era berean, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostena lau epigrafetan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren epigrafean, txostenaren helburuak eta egindako lanaren norainokoa ageri dira. Hirugarrenean, lanean lortutako ondorio orokorrak erakusten dira. Azkenik, laugarrenean, amaierako laburpena ematen dugu.

Eskerrak ematen dizkiegu Unibertsitateko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentu-eskariari eta Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, honakoa da aholkularitza-txosten honekin lortu nahi den helburua:

“Egiaztatzea noraino bete duen Nafarroako Unibertsitate Publikoak “Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketaren azterketa (2010eko abuztua” izeneko txostenean Kontuen Ganberak emandako gomendioen eta bestelako hobekuntza proposamenen multzoa”.

Lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Zehazki, lana NUPeko arduradunei bidalitako galdetegiaren teknikaren bitartez gauzatu da. Galdetegi horretan ganbera honen ekimenez sortutako gomendioak eta hobekuntza-proposamenen multzoa jasotzen zen; horien arrazoiak honakoek eragindako egoera zen: egungo krisi ekonomikoa, aurrekontu-doikuntzak eta administrazio publikoen erreforma. Halaber, kontabilitate- eta aurrekontu-informazioa eskatzen zen 2009tik 2012ra bitarteko ekitaldiei buruz, bai eta 2010-2011tik 2012-2013ra bitarteko ikasturteei buruz ere; halere, azken ikasturte horri dagokionez, txostena noiz idatzi zen ikusita, hainbat informazio behin-behinekotzat edo aurrerapentzat hartu behar dira.

Europako Goi Mailako Hezkuntza-gunea (Bologna Plana) pixkanaka ezartzearen ondorioz, batera existitzen dira lizentziatura- eta diplomatura-ikasketak eta graduak, eta horrek nolabaiteko distortsioa eragiten du bilakaerari buruzko analisi batuetan eta datu estatistikoetan.

Azkenik, adierazi behar dugu Ganberak 2013. urterako daukan Jarduketa Planaren barruan, Unibertsitatearen 2012ko ekitaldiko kontu orokorren arauzkotasunari buruzko fiskalizazio lan bat sartu dela.

III. ONDORIOAK

Egindako lanaren norainokoaren eta metodologiaren arabera, honako arloetako ondorioak atera dira:

- Berariazko gomendioak.
- Bestelako hobekuntza-proposamenak.
- Ikasleei eta titulazioei buruzko adierazleak (2009/10 ikasturtetik 2012/13 ikasturtera).
- Aurrekontu-magnitudeen eta magnitude ekonomiko-finantzarioen bilakaera (2009tik 2012ra).
- Unibertsitate-rankingak eta NUPen posizioa.

III.1. GOMENDIOEN JARRAIPENA

NUPen kudeaketaren azterketari buruzko txostenean guztira hamaika “gomendio” jaso ziren berariaz. Honakoa da horien egungo egoera, betetze-egoera berariaz adierazita: “ezarrita”, “egiten ari da” eta “egiteko dago”.

1. Kostu-sistema bat ezartzea. “**Egiten ari da**”.

Hasi da, errektorearen 2011ko uztailaren ebazpenaren bitartez, sistema bat ezartzen, Unibertsitateentzako Kontabilitate Analitikoaren ereduari jarraituz. Ezarpen hori Unibertsitateen arteko Lankidetzarako Bulegoaren bitartez gauzatzen ari da; izan ere hari adjudikatu zitzaion eredu hori pertsonalizatzea eta ezartzea, 2011ko uztailan. Horri dagokionez zehaztu beharra dago Hezkuntzaren arloan gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege-dekretuak ezarri zuela matrikulen prezio publikoak lotuta egonen direla zerbitzua emateko kostuekin, eta zenbait estaldura-maila aipatzen ditu graduako irakaskuntzarako –lehenengo matrikula eta hurrengoak– eta master-irakaskuntzarako; halaber, ezartzen da unibertsitate guztiak kontabilitate analitikoko sistema bat ezarri beharko dutela 2015-2016 ikasturterako.

2. Irakaskuntza Antolatzeko Planaren (POD) jarraipena. “**Ezarri da**”.

Ikasturte bakoitzean egiten diren bi irakaskuntza antolatzeko planez gainera –hasi baino lehen eta hasi ondoren egiten dira–, jarraipen hori honako jarduketa lerroekin indartu da:

- Irakasle eta ikertzaile diren langileen (IIL) plantilla antolatzeko irizpideen agiri berria, 2012ko uztailan onetsia.
- 2011ko azaroan gorabehera akademikoak kudeatzeko prozedura onetsi zen.
- Ikuskapen Unitatearen jarduketa.
- Irakaskuntza-jardueraren ebaluazioa, non kontuan hartzen baitira irakaskuntzan gerta daitezkeen ez-betetzeak.
- Ikasgeletan irekierarako gailu elektronikoak ezartzen joatea, irakasle bakoitzarentzako banakako txartel baten bidez.

3. Irakasle eta ikertzaile diren langileen (IIL) absentismoaren jarraipena egiteko sistema. “**Ezarri da**”.

Irakasle eta ikertzaile diren langileen absentsimoaren izaerari, inguruabarrei eta, kasuan-kasuan, eraginei buruzko jarraipenerako eta kontrolerako berariazko erregelamendu edo prozedura bat onetsi ez bada ere, Unibertsitatean ukituta dauden estamentuek –sailak, ikastetxeak eta giza baliabideen zerbitzua– gai horri buruzko kontrolak egiten dituzte, bereziki aldi baterako ez-gaitasunaren arloari dagokionez; halaber, 2. gomendioan aipatutako jarduketa-lerroek kontrol horiek areagotu dituzte.

4. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen (AZL) araubide juridikoa egokitzea Foru Komunitateko langileen araudi berekiari. “**Ezarri da**”.

la amaitu da egokitze prozesu hori, eta soilik barne-sustapenaren inguruko politika gelditzen da. Horri dagokionez, Gerentziak proposamen bat aurkeztu zion negoziazio-mahairi, eta haren erantzunaren zain gaude.

5. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen presentzia fisikoaren gaineko kontrola. “Ezarri da”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko gerentzearen zirkular baten bitartez, 2010eko urrian ordu-tegi eta lanaldiak kudeatzearen bidezko kontrolerako sistema mekaniko bat ezarri zen, Cronos aplikazio informatikoaren bitartez. Gerentzearen 2011ko martxoaren 10eko ebazpenaz administrazioiko eta zerbitzuetako langile guztiei ezarri zitzairen beren lanaldiaren benetako betetzea egiaztatzeko betebeharra, fitxaketaren bitartez.

6. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen absentismoaren jarraipen sistema. “Ezarri da”.

Aurreko gomendioaren aplikazioa aukera ematen ari da administrazioiko eta zerbitzuetako langileen absentismoa ezagutzeko, aztertzeko eta, kasua bada, mugatzeko. Hala eta guztiz ere, ez da onetsi berariazko erregelamendu edo prozedurarik.

7. Ikerketa aplikaturako eta jakintzaren transferentziarako politika. “Egiten ari da”.

Gomendioak ezartzen zuen, alde batetik, ikerketaren arloko politika hori bideratzea errentagarritasun ekonomiko-sozial handiagoa zuten arlo edo adarretara eta, bestetik, enpresen sektore produktiboarekin eta beste unibertsitate batzuekin lankidetzara handiagoa bilatzea. Gomendio hori beteitzeko zailtasun praktikoa aitortuta –bai egungo arau-esparruarengatik, bai egoera ekonomiko orokorrarengatik–, NUPek neurri estrategiko batzuk ezarri ditu hura gauzatzeko; hartara, honakoak aipatu behar ditugu mugari garrantzitsuenak direlakoan:

- Ikerketa taldeen kanpoko ebaluazioa, zeinak aukera eman baitu nazioko nahiz nazioarteko bikaintasunekotzat ebaluatutako taldeei laguntza selektiboa emateko.

- 2011-2014 urteetarako Unibertsitateko III. Plan Estrategikoa onestea, non ikerketa ardatz estrategiko baten gisara jasotzen baita.

- “Jerónimo de Ayanz” I+G Zentroa abian jartzea, unibertsitatearen eskaintza teknologikoaren bilgune gisa.

- SODENA enpresa publikoarekin batera, nanoteknologiaren arloko zentro teknologiko bat sortzea –FIDENA–, Nafarroako enpresen ehunduran eragiteko helburuarekin.

- Ikerketa proiektu lehiakorretan parte hartzea.

- NUP Ebro Ibarreko Nazioarteko Bikaintasun Campusean sartzeko, beste hiru unibertsitateekin batera.

- G9aren barruan, UNIVALUE sozietate mugatua sortzea. Haren helburua da, batetik, patenteen zorroa eta, bestetik, taldeko unibertsitateek garatutako teknologiak indartu eta merkaturatzea.

8. Irizpide objektiboak zehaztea, zerbitzu-sarien zenbatekoa eta ikertzaileen dedikazioa zein den jakiteko, horiek espezifikoki zehaztuta ez dauzkaten kontratu eta proiektuetan. “Egiteko dago”.

Horren gauzatze efektiboa kontabilitate analitikoaren garapenari lotuta dago.

9. Ikerketaren zeharkako kostuak zehaztea. “Egiteko dago”.

Horren ezarpena zuzenean lotuta dago kontabilitate analitikoaren garapenarekin.

10. Sailei “proiektu konplexuak” izeneko aurrekontu-kontzeptuko funtsak banatzeko irizpidea. “Ezarri da”.

Hartara, irakaskuntzarako ekipamendua, 2012. urtetik aurrera, gauzatzen da kontuan hartuz sailen irakaskuntza-beharrizanekin lotuta dauden adierazleen multzo bat; ikerketarako ekipamendua, berriz, funtsean, ikerketa-taldeen bitartez eta talde horiei egiten zaien barne- eta kanpo-ebaluazioeko prozesuan lortu duten puntuazioaren arabera taxutzen da.

11. Inbertsioak lehenestea NUPek Nafarroako Gobernuarekin daukan urte anitzeko finantzaketa-hitzarmenaren esparruan. **“Egiteko dago”**.

Ikusita finantzaketa-hitzarmen hori ez dela onetsi, ezin izan da gomendio hori gauzatu. Inbertsioak urtero zenbatesten dira ekitaldiari aplikatzekoa zaion hitzarmenaren barruan; alabaina, 2012koari buruzkoan, ez da inbertsioetarako berariazko finantzaketarik jaso.

III.2. BESTELAKO HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK.

Atal honetan jasotzen da 2010eko txostenean jasotako proposamen sail bat, unibertsitatearen kudeaketan eragina duten oinarrizko alderdiei buruzkoa, unibertsitate publikoen multzoan gaur egun lan egiten den testuinguruaren barruan. Zehazki, hobekuntza proposamen horiek honako araberako antolatuta ditugu:

- Finantzaketa hitzarmena.
- Gobernantza.
- Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL)
- Ikerketa
- Administrazio eta Zerbitzuetako langileak (AZL)

III.2.1. Finantzaketa hitzarmena

NUPen kudeaketari buruzko azterketa egiten duen txosten horretan, honakoa baieztatu zen:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa ziurgabetasunean eta behin-behinekotasunean dago murgilduta. Gainera, honako faktore hauek egoera hori larriagotzen dute: unibertsitatea Europako Esparrura egokitzeko prozesuaren erdian dago; epe ertainean, ez dago Espainiako unibertsitate publikoak finantzatzeko ereduaren oinarrizko arauketarik; eta ekonomia- nahiz finantza-krisiaren eragina, gizarte osoan nabaritzen ari da. ...

Hitz batean, proposatzen den ereduak, NUPen finantza-nahikotasuna bermatzeaz gain, bidea eman behar du kudeaketaren gardentasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia sustatzeko esparru guztietan: irakaskuntza, ikerketa eta baliabideen kudeaketa. Jakina, eredu horrek behin-behinekoa izan beharko luke, bai estatuak egin dezakeen oinarrizko arauketa iritsi bitartean, zeina esparru honetan unibertsitate publiko guztietan aplikagarria izanen bailitzateke, bai Unibertsitatearen beraren benetako kostuei buruzko informazio zehatzagoa lortu bitartean”.

Jarraipen txosten hau idazteko garaian, indarrean jarraitzen dute aipatutako iruzkinek; izan ere:

- Gobernu zentralak ez du arautu Espainiako unibertsitate publikoak finantzatzek eredia.
- Nafarroako Gobernuak eta Unibertsitate Publikoak ez dute urte anitzeko finantzaketa-sistema iragankor bat zehaztu, eredu berria arautu bitartean aplikatzekoa.
- Ez da zehaztu zenbatekoa den titulazio ofizialen mapa gerria abiarazteak eragindako gastu garbiaren hazkundea.
- Ez dago urte anitzeko inbertsioetarako planik ez eta finantzaketa-planik ere.
- NUPen finantzaketa oraindik ere Nafarroako aurrekontu orokorretan zehazten jarraitzen da. Finantzaketa horren aplikazio zehatza Nafarroako Gobernuarekin urtero hitzarmena sinatuz arautzen da. Hitzarmen horiek funtsean zentratuta daude ekitaldi bakoitzean Unibertsitateari ematen zaion oinarrizko finantzaketa zehatzuz, kudeaketa-jarduketak kontuan hartu gabe, eta haietan eragin handia izan dute azken urteetan Nafarroako Gobernuak gastu publikoaren politikan sartu dituen doikuntza neurriek. Doi-

kuntza horiek eragin dute Unibertsitateak egiazki jasotzen duen finantzaketa txikiagoa izatea Gobernuaren hasierako aurrekontuetan beraitan ezarritakoa baino.

Horrenbestez, oraindik ere indarrean jarraitzen du kudeaketa-txostenean adierazitako proposamen edo gogoeta honek:


“Nafarroako Gobernuak urte anitzeko finantzaketa-eredu bat zehaztea, Nafarroako unibertsitate-erakunde publikoaren finantza-egonkortasuna eta -bideragarritasuna bermatzeko. *Eredu horrek bide eman behar du gardentasuna, kalitatea, efikazia eta efizientzia sustatzeko esparru guztietan*: irakaskuntzan, ikerketan eta unibertsitateak baliabideak kudeatzeko duen moduan”.

Honako taula eta irudi hauetan erakusten da hitzarmeneko zein den diru-sarrerren bilakaera (2006tik 2012ra bitartekoa) eta Unibertsitatearen diru-sarrerren eta gastuen guztizkoarekin daukan erlazioa (euroak, milakotan).

Hitzarmenetik heldutako diru-sarrerren bilakaera eta xehakapena:

Finantzaketa hitzarmena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Transferentzia arruntak	50.314	53.563	56.591	53.172	60.188	56.983	51.645
Inbertsioak	3.788	6.500	10.300	2.687	1.530	100	0
Hitzarmena, guztira	54.102	60.063	66.891	55.859	61.718	57.083	51.645
Adierazlea	100	110	124	103	114	106	95

Grafikoki, honakoa izan da bilakaera hori:




Ikusten den bezala, Nafarroako Gobernuaren 2008ko ekarpena da handiena, 66,9 milioikoa; txikiena, aldiz, 2012koa da, 51,6 milioikoa. Nabarmentzekoa da, halaber, inbertsioetarako finantzaketak behera egin duela pixkanaka; izan ere, 2012rako batere ez da jaso.

Hurrengo taulan erakusten dugu zenbat egiten duen hitzarmenaren zenbatekoak unibertsitatearen aurrekontuko gastu eta diru-sarrerren guztizkoan (euroak, milakotan).

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmena	54.102	60.063	66.891	55.859	61.718	57.083	51.645
Aurrekontu-diru-sarrerak, guztira	73.038	83.609	90.864	78.918	82.660	79.652	71.050
Hitzarmenak diru-sarreretan zenbat egiten duen	74,07	71,84	73,62	70,78	74,66	71,67	72,69
Aurrekontu-gastuak, guztira	70.008	75.703	90.172	81.751	80.273	78.335	75.126
Hitzarmenak gastuetan zenbat egiten duen	77,28	79,34	74,18	68,33	76,89	72,87	68,74

Ondorengoa da horren irudi bidezko adierazpena:



Ikusten den bezala, hitzarmeneko diru-sarrerak ehuneko 73 inguru egiten dute guztizko diru-sarreretan. Hitzarmeneko diru-sarrera horiekin gastuen ehuneko 74 finantzatzen dira, batez beste.

Azkenik, 1. taulan erakusten da hitzarmenaren zenbatekoak nolako eragina izan duen hasierako aurreikuspenetan (euroak, milakotan), 2010etik 2012ra bitarteko aldirian gastua gutxitzeko – dela Nafarroako Gobernuaren ekimenez, dela gobernu zentralerako neurrien ekimenez– aplikatu diren neurrien ondorioz.

Hartara, ikus daiteke 2010ean doikuntza-neurriek 2,8 milioi euroko murrizketa eragin zutela; hau da, hasierako aurreikuspenen ehuneko lau; 2011n, berriz, lau milioi euroko murrizketa izan zen, ehuneko zazpikoa alegia, eta 2012an, azkenik, 7,3 milioi euroko murrizketa, ehuneko 12koa hain zuzen.

2010ean, murrizketak eragina izan zuen bai transferentzietan –irakaskuntza eta ikerketa–, bai inbertsioetan; 2011n eta 2012a, berriz, murrizketa hori transferentzietan zentratu zen, batez ere. 2012rako, honakoa da xehakapena (euroak, milakotan):

Murrizketa	Diru-kopurua
Finantzaketan izandako murrizketa.	2.950
Matrikula bidez izandako diru-sarrera handiagoen ondoriozko doikuntza.	1.798
Aparteko soldataren aurrezpena dela-eta izandako doikuntza.	2.524
Murrizketa, guztira	7.272

1. taula. Ezarritako neurriek hitzarmenean izan duten eragina (2010-2012).

Hitzarmenaren finantzaketa	2010				2011				2012				
	Hasierakoa	Gastu publikoa gutxitzeko planaren ondoriozko murrizketa	12/2010 FLaren ondoriozko murrizketa	Finantzaketak	Betetzea	Hasierakoa	Murrizketa	Finantzaketak	Betetzea	Hasierakoa	Murrizketa	Finantzaketak	Betetzea
Transferentzia arruntak													
Irakaskuntza eta ikerketa	57.166	300	1.371	55.495	55.495	55.909	2.662	53.247	53.247	56.021	7.272	48.749	48.749
Irakasleen osagarriaren ondoriozko lansaria	2.940	0	86	2.854	2.716	2.854	81	2.774	2.773	2.979	0	2.979	2.897
Tuteran ikasketak ezartzea ⁽¹⁾	2.120	0	5	2.115	1.977	2.120	1.157	963	963	0	0	0	0
Transferentzia arruntak. Honaino, guztira	62.226	300	1.462	60.464	60.188	60.883	3.900	56.983	56.983	59.000	7.272	51.728	51.645
Inbertsioak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Iruñeko campusa	1.380	447	0	933	895	100	100	0	0	0	0	0	0
Tuterako campusa	1.289	574	0	715	635	100	0	100	100	0	0	0	0
Bestelako inbertsioak (zehaztu)	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Inbertsioak. Honaino, guztira	2.669	1.021	0	1.648	1.530	200	100	100	100	0	0	0	0
Guztira	64.894	1.321	1.462	62.112	61.718	61.083	4.000	57.083	57.083	59.000	7.272	51.728	51.645

(1) 2012tik, ez da berriaz xehakatzen, orokorraren barruan jasotzen baita.

III.2.2. Gobernantza

- Unibertsitatearen gobernu-organo kolegiatuetan –Gizarte Kontseilua, Gobernu Kontseilua, Unibertsitate Klaustroa, eskola- eta fakultate-batzarrak eta sailtako kontseiluak–, unibertsitate publikoei buruzko oinarrizko araudiaren erreforma egiten ez den bitartean, ez da, funtsean, aldaketarik izan.

- Pertsona bakarreko organoen barruan, errektoreordetza bat kendu dela ikusi dugu.

- Irakaskuntzaren antolaketari dagokionez, egitura berari eusten zaio; hau da, 22 sail eta sei fakultate edo eskola.

- Administrazio-antolaketari dagokionez, honakoak adierazi behar ditugu:

a) Ez da haren organigramarik onetsi.

b) Izendapenak alde batera utzita, ez dago inolako dokumenturik, zerbitzuen, atalen eta bulegoen ardura, eskumenak eta funtzioak zehaztuko dituenik.

c) Gaur egun, unibertsitatea Zerbitzuen Gutunen Katalogo bat prestatzeko lanean ari da. 2012an, bi gutun onetsi dira, langileen kudeaketari eta nominei buruzkoa bata eta agiri eta artxi-boen kudeaketari buruzkoa bestea.

Egitura horren egungo taxutzea eta haren kudeaketa-txostenean adierazitakoaren arteko aldeaketa hurrengo taulan eman ditugu. Ez da aipatzeko moduko aldaketari antzeman, alde batera utzita ekonomikoetarako gerenteordetza bat sortu dela.

Unitateak	Kudeaketa txostena	Egungo egoera
Gerentzia	1	1
Gerenteordetza		1
Zerbitzuak	10	11
Atalak	29	30
Bulegoak	42	44
Beste entitateak	5	3

- Gobernuak ez ditu garatu honako hauei buruzko unibertsitate-lege organikoetan jasotako aurreikuspenak: Unibertsitatearen aurrekontuak garatzea eta betearaztea; haren urteko kontuen edukia eta aurkezpena; gizarteari kontuak emateko prozesua; eta Gizarte Kontseiluak kudeaketari eta finantzaketari dagokionez bete behar dituen kontrol- eta gainbegiratze-funtzioak.

Azken batean, indarrean jarraitzen du kudeaketa txostenak gaiari buruz jasotako gogoetak:

“Kudeaketa-egitura: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egungo kudeaketa-eredua, Espainiako gainerako unibertsitate publikoetan bezala, estatuko oinarrizko araudian dago zehaztuta, baina araudi horretan kudeaketa-ahulgune handiak daude, erabakiak hartzeko prozesuan erabiltzen den eredu burokratiko eta kolegiatuaren ondorioz”.

Unibertsitatearen gobernantzaren barruko beste alderdi adierazgarri batzuk ere aipatzen dira txostenean. Honakoak nabarmendu nahi ditugu:

Beste unibertsitate batzuekiko aliantza estrategikoak. 2010ean, unibertsitatea Ebro Ibarreko Nazioarteko Bikaintasun Campusaren edo “Campus Iberus” delakoaren kide deklaratu zuten, Zaragozako, Lleidakoko eta Errioxako unibertsitateekin batera. Campus horren helburu gisa – Unibertsitatearen Plan Estrategikoaren beraren barruan sartu dira–, honakoak adierazi nahi ditugu:

"Iberus" Nazioarteko Bikaintasun Campusaren helburu estrategikoak	
Heziketa integrala lortzea	Bikaintasun zientifikoa lortzea
Nazioartera ateratzearen aldeko apustua	Talentua erakartzeko gunea
Diziplina artekotasuna eta lankidetzaz susta-	Kudeaketaren kalitatea hobetzea
Erantzukizun soziala indartzea	Gizartearekiko integrazioa bultzatzea
Behar diren azpiegiturak gehitzea	Arloz arloko campusak antolatzea

Nazioarteko Bikaintasun Campusaren Programa –Hezkuntza Ministerioak sustatua– Espainiako unibertsitatea modernizatzeko Unibertsitatea 2015 Estrategian sartzen da. Unibertsitateen eta campusetan kokatutako gainerako erakundeen arteko metatze estrategikoak sustatu nahi ditu, "ezagutzaren ekosistemak" sortu eta haien bidez enplegua, gizarte kohesioa eta lurraldeko garapen ekonomikoa errazteko.

"Iberus" proiektuak goi mailako hezkuntzaren zatiketa gaintzen du; izan ere, lau unibertsitate eta lau autonomia erkidegotako muga geografiko eta administratiboak biltzen ditu. Honakoak dira proiektuaren espezializazio esparruak:

- Bizi kalitaterako materialak eta teknologiak.
- Nekazaritza-elikadura eta nutrizioa.
- Memoria, ondarea eta identitateak.

Halaber, nabarmentzen dugu proiektu honek Espainiako mugak ere gaintzen dituela, eta prestatzen ari dela jauzi kualitatibo bat egiteari ekiteko, hain zuzen ere mugez gaintzeko campus bat eraikiz Tolosako eta Paueko unibertsitateekin.

• Plan estrategiko bat edukitzea. 2011n, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2011-2014 urteetarako III. Plan Estrategikoa onetsi zen. Planak sei jarduketa-ardatz dauzka, 60 helburu estrategiko eta 60 helburu operatibo. Aginte integralari buruzko taula bat gehitu dugu, 17 adierazlerekin. Bertan, egungo egoera eta 2014rako lortu nahi den helburua azaltzen dira. Aginte integralaren taula ondoren berretsiko da.

Ardatz estrategikoa	Adierazlea	Egungo balioa	2014rako helburua
Prestakuntza	1. Errendimendu tasaren portzentajea	74	78
	2. Graduazio tasaren portzentajea	44	55
	3. Ingelesezk eskaintzen diren gradu-ikasgaiak	24	100
	4. Ingelesezk eskaintzen diren master-ikasgaiak	0	20
	5. Praktikak egiten dituzten ikasleen eta tituludunen portzentajea	32	47
Ikerketa	6. Produkzio zientifikoa	374	393
	7. Doktore-tesiak	36	38
	8. Eskatutako patenteak	9	14
	9. NUPen ikerketa-jarduerak eraginda sortu diren enpresak	2	6
	10. Ikerketa lehiakorretik heldutako diru-sarrerak hartzearen portzentajea	0,077	0,079
	11. Transferentzia-kontratuetatik heldu diren diru-sarrerak hartzearen portzentajea	1,214	1,251
Hedadura	12. Alumni programa	883	1.500
Nazioarteratzea	13. Ikasleen nazioarteko mugigarritasuna	565	650
	14. IILen nazioarteko mugigarritasuna	357	380
Prozesuak eta kalitatea	15. Ikasketa-ziurtagirien kudeaketa elektronikoen portzentajea	0	80
Baliabideak	16. IILen ikerketa-kualifikazioaren portzentajea	69	71
	17. Beste iturri batzuetatik heldu diren diru-sarreraren portzentajea	4,1	4,6

III.2.3. Irakasle eta ikertzaile diren Langileak (IIL)

Hurrengo alderdiak azpimarratuko ditugu:

III.2.3.1. IILen plantillaren irizpideak

NUPen irakaskuntza-jarduera hasi zenetik, zenbait erabaki edo irizpide onartu dira irakasle eta ikertzaile diren langileen plantilla-eredua zehazteko. Erabaki horien guztien xedea honakoak zehaztea izan da: IILen plantillaren egitura estandarra; ikerketan eta kudeaketan duten dedikazioaren araubidea; lanpostuen zuzkidura, eta irakaskuntza antolakuntzarako plana (IAP) prestatzea. NUPen azken jarraibidea 2012ko uztailean onetsi zen.

Plantilla estandarraren egituraren bilakaera, onartutako irizpideak kontuan hartuta, taula honetan agertzen da:

IILak	1996	2001	2002	2006	2008	2012
Unibertsitateko katedraduna				14		
Unibertsitateko titularra						
UEko katedradunak eta titularrak				42		
Irakasle eta ikertzaile funtzionarioak guztira	60-70	60-70	51-60	56	+ 50	+ 51
Elkartekideak						
Bestelakoak	15-20	15-20	5-15	9		
Kontratatutako doktorea			10-20	9		
Doktore laguntzailea						
Laguntzaileak	15	15	15-25	26		
Bisitariak	5	5				
Kontratatutako irakasleak eta ikertzaileak, guztira	40-30	40-30	49-40	44	- 50	-49

Gainera, beste baldintza bat ezarri zen 2008tik: sail bakoitzean, doktore diren irakasle eta ikertzaileen kopuruak % 70a gainditzea.

2012ko benetako egoerari dagokionez, eta kontuan hartuta Unibertsitateen Lege Organikoak (LOU) eta plantilla-irizpideek berek gai honetan jasotako eskakizunak, honako hauek ikusten dira:

a) LOUk dio kontratatutako irakasleak eta ikertzaileak, denbora osoko baliokidetasunetan uler-tuta, ezin direla izan irakasle eta ikertzaile guztien % 49 baino gehiago. 2012an, NUPeko kontratatutako irakasleak eta ikertzaileak (DOB) % 42 ziren.

b) Aipatutako LOU legeak, halaber, esaten du aldi baterako lan-kontratua duten irakasleak eta ikertzaileak ezin direla izan irakasle guztien % 40 baino gehiago. 2012an, plantillaren % 51k aldi baterako kontratua dauka.

c) Plantillaren antolaketarako irizpideei dagokienez, irakasle eta ikertzaile funtzionarioek % 51 baino gehiago izan behar dute. 2012ko datuen arabera, irakasle eta ikertzaile funtzionarioak %40 dira.

Hortaz, NUPi oraindik asko falta zaio LOUren eskakizunak betetzeko, eta bere plantilla-irizpideetan jasotako helburuak lortzeko.

III.2.3.2. Irakaskuntzarako ahalmenaren eta irakaskuntza-jardueraren arteko orekaren printzipioa

2012ko plantilla-irizpideei buruzko agirian, honako kontzeptuak ezartzen dira:

a) Sail bateko *irakaskuntza-betekizunak* funtsean indarreko araudiaren arabera kontabilizatu-tako titulazio ofizialen zuzeneko irakaskuntza hartzen du, bai eta harekin lotutako beste jarduera batzuk ere (karrera amaierako proiektuak, master amaierako proiektuak, tesiak...).

b) *Jarduera akademikoa* irakaskuntza-betekizunaren eta zuzendaritza- eta kudeaketa- zein ikerketa-lanetan egindako jardueraren batura. Azken batean, IILaren lanaldia.

c) Irakasleen *irakaskuntza-ahalmena* estatutu-tako arauetan eta indarreko legedian irakaskuntzarako adierazitakoa da.

d) *Jardueraren koefizientea* jarduera akademikoaren eta irakaskuntza-ahalmenaren zatidura da, ehunekotan adierazia.

Azken koefiziente horrek ehuneko 90 eta 95 artekoa izan behar du, ikasturtean zehar noizbehinka gerta daitezkeen bajei eta bestelako egoerei erantzun ahal izateko. Printzipio horrek erabakitzen ditu irakaskuntza-behar berriak edo haien murrizketa.

Irakaskuntza-ahalmena murriztu behar bada, lehenengo eta behin haren kopuruari eta aldi baterako kontratatutako irakasleen dedikazioari begiratuko zaie edo, kasua bada, erretiroengatik, uko egiteengatik edo bestelako arrazoi batzuegatik hutsik geratzen diren irakaskuntza-postuak amortizatzeraz joko da.


Lanpostu berriak eskatzeko, baldin eta aurrekontuan behar adina diru badago, bete beharreko baldintza izanen da jardueraren koefizienteak, proposatutako amortizazioak kontuan izanda, ehuneko 90a gainditzea edo berdintzea.

III.2.3.3. IILen bilakaera

Hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den IILen guztizko kopuruaren bilakaera, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31ko kopuruari erreparatuta.

Irakasle eta Ikertzaile diren langileen (IIL) kopurua	2009	2010	2011	2012	2012/2009 aldea (%)
Irakasle funtzionarioen kidegoak (A)	365	378	380	355	-3
Unibertsitateko katedradunak	70	85	97	90	29
Unibertsitateko titularrak	247	247	244	239	-3
Unibertsitate Eskolako katedradunak	10	10	10	7	-30
Unibertsitate Eskolako titularrak	38	36	29	19	-50
Irakasle kontratatuak (B)	555	537	550	523	-6
Doktore kontratatu iraunkorra	58	55	66	75	29
Laguntzailea	32	32	36	33	3
Doktore laguntzailea	47	48	51	44	-6
Irakasle elkartua	406	386	387	358	-12
Emeritua	1	1	1	2	100
Bisitaria	6	5	4		-
Bestelakoak	5	10	5	11	220
IILak, guztira (A+B)	920	915	930	878	-5
Adierazlea	100	99	101	95	

Eta honakoa da haren irudi bidezko adierazpena:



Hau da, aztertutako aldirian, kopuru horrek orokorrean ehuneko bost egin du behera; hau da, 42 lanpostu gutxiago daude. Kategoriei erreparatuta, honakoa adierazi behar dugu:

a) Irakasle funtzionarioen murrizketa ehuneko hirukoa izan da. Nabarmentzekoa da unibertsitate eskoletako irakasleen murrizketa eta unibertsitateko katedradunen kopuruaren igoera.

b) Irakasle kontratatuetan, murrizketa ehuneko seikoa izan da. Garrantzi kuantitatiboaren arabera, nabarmentzekoa da irakasle elkartuen kopuruak ehuneko 12 egin duela behera –406 lanpostu izatetik 358 lanpostu izatera–, eta kontratatu iraunkorrek ehuneko 29 egin dutela gora –58 lanpostu izatetik 75 lanpostu izatera–.

c) Ehunekoei erreparatuta, hurrengo taulan erakusten da nolako erlazioa dagoen unibertsitateko langile funtzionarioen, langile kontratatuen eta IIL guztien artean.

IILak	2009	2010	2011	2012
IIL funtzionarioak zenbat diren IILen guztizkoan	39,67	41,31	40,86	40,43
IIL kontratatuak zenbat diren IILen guztizkoan	60,33	58,69	59,14	59,57
Aldi baterako kontratatutako IILak zenbat diren IILen guztizkoan (*)	54,02	52,68	52,04	51,03

(*) Doktore diren irakasle kontratatu iraunkorrek alde batera utzita

Bistan denez, guztizkoan irakasle funtzionarioak ehuneko 40 inguru izan dira lau urteetan, eta irakasle kontratatuak, berriz, ehuneko 60 inguru. Irakasle kontratatuetatik kentzen baditugu lotura iraunkor bat dutenak, portzentajea ehuneko 51ra iristen da.

d) Azkenik, hurrengo taulan erakusten dugu nolako bilakaera izan duen denbora osoko balio-kideak (DOB) diren IILen kopuruak:

Ekitaldia	Irakasle funtzionarioen kidegoak		Irakasle kontratatuak		PDI-DOBAk, guztira	
	Langile-kopurua	Ehunekoa	Langile-kopurua	Ehunekoa	Langile-kopurua	Adierazlea
2009	359	58,18	258	41,82	617	100
2010	372	59,71	251	40,29	623	101
2011	374	58,53	265	41,47	639	104
2012	350	57,66	257	42,34	607	98

Hau da, IIL-DOB kopuruan hamar lanpostu gutxiago daude; hau da, ehuneko bi jaitsi da haren kopurua. Gutxitze hori nagusiki funtzionarioengan zentratu da –bederatzi lanpostu gutxiago–, zeren eta kontratatuak lanpostu bat baino ez baitute galdu.

DOB funtzionarioak, azken urtean, guztizkoaren ehuneko 58 dira; kontratatuak, berriz, ehuneko 42.

III.2.3.4. IILen dedikazioa

Abiapuntutzat hartuta goi hezkuntzaren zerbitzu publikoa, unibertsitateek ematen dutena, elkarren mendekoak diren funtsezko bi prozesuetan gauzatzen dela batez ere, irakaskuntzan eta ikerketan hain zuzen, hurrengo atalean erakusten dugu zein izan den IILen dedikazioaren arau-bilakaera. Halaber, kontuan hartu beharra dago langile horiek unibertsitateen beraien kudeaketa akademikoaren eginkizunak betetzen dituztela.

NUPeK ikerketa- eta kudeaketa-jarduerak aitortzeko aplikatzen duen eredu horixe da, orokorrean, Espainiako unibertsitate publikoek aplikatzen dutena.

Azterketa horretarako, bi denbora-esparru bereizi ditugu:

A) 2011-2012 ikasturtera arte.

Unibertsitateko irakasleen dedikazio-araubidea apirilaren 30eko 898/1985 Errege Dekretuan dago araututa. Eta hala, denbora osoko unibertsitate-irakasle baten asteko dedikazioa 37,5 ordukoa da, eta urteko lanaldia 1.650 ordukoa. Lanaldi orokor horren barruan, IILek funtsean irakaskuntzarekin, ikerketarekin eta jakintzaren transferentziarekin, bai eta unibertsitate-kudeaketarekin ere, lotutako jarduerak garatzen dituzte, batez ere.

Irakasleek hiru jarduera horietako bakoitzean benetan duten dedikazioari dagokionez, ez dago hura kuantifikatzen duen edo balio adierazgarriak lortzen dituen inolako azterketarik.

Irakasle-mota bakoitzak irakaskuntzan emandako orduak osatzen dute irakaskuntza-jarduera. Eta hala, asteko irakaskuntza-karga teorikoa hemen jasotakoa da:

IILak	Asteko zuzeneko irakaskuntza-orduak	Kredituak
Unibertsitateko katedraduna	8	24
Unibertsitateko titularra	8	24
UEko katedraduna	8	24
UEko titularra	12	36
Irakasle kontratua, doktorea	8	24
Irakasle elkartua		kontratua
Irakasle laguntzailea		kontratua
Irakasle bisitaria		kontratua

Hortaz, zuzeneko irakaskuntza irakasleen eta ikertzaileen asteko dedikazioaren % 25 inguru da (dedikazio osoa 37,5 ordukoa da).

Dedikazio-ordu horiek eskolak emateari dagozkie; bai eskola teorikoak, bai praktikoak. Baina lan horretaz gain, irakaskuntzak hauetan ere jardutea eskatzen du:

- Eskolen prestaketa; zaila da denbora hori kalkulatzeko.
- Nahitaezko tutoretzak, gehi tutoretzen plana; gehienez ere, asteko 6 ordu NUPen kasuan.
- Ebaluazioak eta azterketak: prestatzea, zuzentzea eta berrikustea.
- Irakaskuntzari lotutako administrazio-lanak; besteak beste: aktak idaztea, fitxak prestatzea, saileko bilerak.

Ez dago ikerketarik edo txostenik jarduera horiek guztiek astean zenbat ordu eskatzen dituzten modu fidagarrian kuantifikatzen duenik. Ondorioz, kudeaketari buruzko txostenean adierazi bezala, ez dakigu zein den irakasleek eta ikertzaileek Unibertsitatean egiten dituzten jardueretan daukaten benetako dedikazioa; bereziki, zuzeneko irakaskuntzaz kanpokoetan.

Hala eta guztiz ere, unibertsitateak jarduera bakoitzari esleitutako orduen banaketa teoriko bat aipatzen du, IILen etorkizuneko estatutuaren zirriborro batzuetatik abiatuta; hartara, urteko 1.650 orduko lanaldi baterako –asteko 37,5 ordu 44 astez–, honakoa izanen litzateke banaketa:

Banaketa	Ikerketa	Irakaskuntza	Prestakuntza eta kudeaketa	Guztira
Ehunekoa	40	40	20	100
Orduak	660	660	330	1.650

Halaber, urteko irakaskuntza orduen banaketa bat biltzen da, 30 irakaskuntza-aste kontuan hartuta:

Irakaskuntza	Oinarrizkoa	Osagarria	Prestaketakoa	Guztira
Urteko orduak	240	180	240	660
Asteko orduak	8	6	6	20

Irakaskuntza-jarduerari dagokionez, IILek, ikerketarako daukaten dedikazioa dela eta, unibertsitate-karguetan dihardutelako eta adin batetik aurrerakoak direlako, astean beste jarduera batzuetarako ordu batzuk dauzkate aitortuta, eta ordu horiek beraiekin dakarte irakaskuntza-jarduera gutxitzea.

1. Ikerketa. Dedikazio osoa duen IIL batek zenbait ordu dauzka aitortuta ikerketarako. Ordu horiek honelako baldintza hauen arabera bete ditzake:

Irizpideak	Asteko orduen gehikuntza Ikerketa
Titulu doktorea lortzea (Unibertsitate Eskolako titularra)	+4 ordu
Doktoretza ikastaroak egitea edo doktore tesia egitea (Unibertsitate Eskolako titularra) (1)	+3 ordu
Bi seiurteko edo gehiago dituen IILa, azkena azken sei urteetan	+ ordu erdi bat
Doktore diren irakasle kontratatua, I3 Programan hautatutako lanpostuarekin	+ ordu erdi bat
I+G+B Planeko proiektuetako ikertzaile nagusia, edo Nafarroako Gobernuaren proiektu lehiakorretakoa edo funtsak NUPen sartzen diren eta proiektuak irauten duen bitartean zeharkako kostuak dituzten Europar Batasuneko esparru-proiektuetakoa.	+ ordubete, gehienez 2 ordu
I+G+B Planeko proiektuetako ikertzailea, edo Nafarroako Gobernuaren proiektu lehiakorretakoa edo funtsak NUPen sartzen diren eta proiektuak irauten duen bitartean zeharkako kostuak dituzten Europar Batasuneko esparru-proiektuetakoa.	+ ordu erdi bat, gehienez 2 ordu
Kontratuen zuzendaritza LOUren 83. artikulua babesean, betiere proiektuko zuzendariak NUPi jasotako diruaren zati bat ematen badio eta HBMACYTC/6 bakoitzeko; zuzendariaren eta kideen artean banatzeko.	+ ordubete, gehienez 2 ordu

(1) Lanaldi osoa duten aipatutako titularrei aplikatzekoa, doktore titulua lor dezaten; gehienez ere lau urtez aplikatuko zaie.

Lanaldi osoa duen irakasle iraunkorraren ikerketa jardueraren gehikuntzaren guztizko zenbatespena ezin da izan asteen hiru ordukoa baino handiagoa, salbu eta irakasleak ikerketa-lana areagotzeko I3 programako laguntza jasotzen badu.

2. Kudeaketa. Kudeaketa akademikoko karguak betetzeagatik, irakasleei honako orduak aitortzen zaizkie:

Kargua	Asteen zenbat ordu ematen diren kudeaketan
Errektoretza taldea	
Errektorea	8
Errektoreordea	7
Idazkari nagusia	7
Errektorearen ondokoa	4
Arloko zuzendaria/idazkariordea	3
Zentroak	
Dekanoa/zuzendaria	4
Dekanordea/zuzendariordea	1
Irakasle idazkaria	2
Sailak	
Zuzendaria	3
Irakasle idazkaria	1
Unibertsitateko Erkidegoa	
Erkidegoaren defendatzailea	3

3. Adinarengatik. Hezkuntzan diharduten gainerako langileek bezala, 60 urte dituzten eta lanaldi osoko dedikazioa duten IIL funtzionarioek eta doktore diren irakasle kontratatuek erreferentziako irakaskuntza-ahalmenaren ehuneko 25 kendu ahalko dute.

B) 2012-2013 ikasturtetik aurrera.

Hezkuntzaren arloan gastu publikoa arrazionalizatzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege-dekretuko seigarren artikulua beste erredakzio bat ematen dio Unibertsitateen Lege Organikoaren 68. artikuluari; artikulua hori, izan ere, unibertsitateko irakasleek irakaskuntza-jardueran duten dedikazioaren araubideari buruzkoa da.

Hartara, unibertsitateko irakasleek jarduera horretan duten dedikazioa ECTS kredituetan neurzen hasten da, eta baldintzak jartzen dira irakaskuntza-jarduera dela-eta ebaluazio positiboak lortzeko (seiurtekoak). Ikasturte batean irakatsi beharreko ECTS kredituen kopurua, aipatutako errege dekretu-lege horren arabera, 24 kreditutan ezartzen da, arau orokor gisa; ikerketako seiurtekoekin lotutako egoera desberdinen arabera, dedikazio hori 16 eta 32 kreditu artekoa izanen dela ezartzen da.

2012ko uztailean, IILen plantilla antolatzeko irizpideei buruzko aipatutako dokumentuan, unibertsitateak onetsi zuen irakasleen dedikazioari buruzko araubide berri hori barne-araudian sartzea. Hartara, honakoa ezarri zuen:

1. Jotzea ikerketa-jarduera dela –seiurtekoen arabera aitortua– irakaslearen irakaskuntza-ahalmena zehazteko garrantzia duen aldagaietako bat. Hau da, irakaskuntza-orduen kopurua zuzenean lotuta dago lanaldi osoa duten IIL funtzionarioetatik bakoitzak pertsonalki aitortuta dauzkan seiurteko biziekin.

2. Emandako irakaskuntza, ECTStan adierazia, eramatea lanaldi osoa duten irakasle funtzionarioen jarduerako asteko orduetara. ECTS kreditu bakoitzak, oro har, 10 orduko irakaskuntza-dedikazioa ekartzen du. Horrenbestez, kasuan-kasuan, ikasturte bakoitzeko 160 (16 ECTS), 240 (24 ECTS) eta 320 (32 ECTS) irakaskuntza-ordu bitarte edukitzen dira. Ikasturte bakoitzeko orduak zati irakaskuntza-asteen kopurua eginez gero –gaurko egutegiaren arabera, 32 ordu dira–, asteko bakoitzeko ordu-dedikazioa finkatzen da aipatutako ECTSetarako; izan ere, 5, 7,5 eta 10 ordukoa izanen da dedikazio hori, hurrenez hurren.

Laburbilduz, aurreko egoera honako taulan islatzen da:

ECTSak, 14/72012 Errege Dekretu- legearen arabera	Lanaldi osoa duen IIL funtzionarioa	Aste bakoitzeko irakaskuntza orduak, NUPen aplikatze-koak	Ikas-turte bakoitzeko irakaskuntza-asteak	Ikasturte bakoitzeko irakaskuntza orduak, guztira
32	Ikerketa-jarduerako sei urteko lehenengo aldia ebaluatu gabe edukitzea edo aldi horretan ebaluazio negatiboa jaso izatea.	10	32	320
24	Azken ebaluazio positibotik 6 urte baino gehiago iragan izatea. Azken 6 urteetan (seiurteko indarduna) ebaluazio positiboa lortu duen IILa.	7,5	32	240
16	Unibertsitateko katedradunak, ondoz ondoko lau ebaluazio positibo edo gehiago lortu dituztenak, baldin eta horietako berriena azken sei urteetan eman bazaio. Unibertsitateko irakasle titularrak, Unibertsitate Eskolako irakasle titularrak edo Unibertsitate Eskolako katedradunak, ondoz ondoko hiru ebaluazio positibo edo gehiago dituztenak , baldin eta horietako berriena azken sei urteetan eman bazaio. Nolanahi ere, 5 ebaluazio positiboki gainditu direnean.	5	32	160

3. Aurreko puntuaren osagarri, lanaldi osoa duten IILen eta doktore laguntzaileen ikerketa-jarduerarako erabil daitezkeen irakaskuntza-dedikazioko orduen guztizko kopurua ezin izanen da asteen hiru ordukoa baino luzeagoa izan, betiere ezarritako honako irizpideen arabera:

Irizpideak	Ikerketarako asteko orduen gehikuntza
Lanaldi partzialeko IIL funtzionarioak eta kontratatutako doktoreak, bi seiurteko edo gehiagorekin, horietako azkena azken sei urteetan	+ ordu erdi bat
Doktore diren irakasle kontratatua, I3 Programan hautatutako lanpostuarekin	+ ordu erdi bat
I+G+B Planeko proiektuetako ikertzaile nagusia, edo Nafarroako Gobernuaren proiektu lehiakorretakoa edo funtsak NUPen sartzen diren eta proiektuak irauten duen bitartean zeharkako kostuak dituzten Europar Batasuneko esparru-proiektuetakoa.	+ ordubete, gehienez 2 ordu
I+G+B Planeko proiektuetako ikertzailea, edo Nafarroako Gobernuaren proiektu lehiakorretakoa edo funtsak NUPen sartzen diren eta proiektuak irauten duen bitartean zeharkako kostuak dituzten Europar Batasuneko esparru-proiektuetakoa.	+ ordu erdi bat, gehienez 2 ordu
Kontratuen zuzendaritza LOUren 83. artikulua babesean, betiere proiektuko zuzendariak NUPi jasotako diruaren zati bat ematen badio eta HBMACYTC/6 bakoitzeko; zuzendariaren eta kideen artean banatzeke.	+ ordubete, gehienez 2 ordu

Horrenbestez, aurreko egoerarekin alderatuta, ikusten da ordu kopuruak behera egin duela eta baldintzak sinpletu direla, funtsean ikerketako seiurtekoak zuzenean hartzen direlako irakas-kuntza-ahalmena finkatzeko aldagai gisa.

4. Kudeaketa akademikoaren jarduerarako, unibertsitatearen barreneko kargu garrantzitsuenei datzekion dedikazioaren honako zenbatespena ezartzen da:

Kargua	Astean zenbat ordu ematen diren kudeaketan, 2012an
Errektoretza taldea	
Errektorea	8
Errektoreordea	7
Idazkari nagusia	7
Errektorearen ondokoa	4
Arloko zuzendaria/idazkariordea	3
Zentroak	
Dekanoa/zuzendaria	4
Dekanordea/zuzendariordea	1
Irakasle idazkaria	2
Sailak	
Zuzendaria	3
Irakasle idazkaria	1
Zuzendariordea	0,5
Unibertsitateko Erkidegoa	
Erkidegoaren defendatzailea	3
Agrobioteknologiako Institutuko zuzendaria	3
Hizkuntzen Goi Mailako Eskolako zuzendaria	4

Horrenbestez, aurreko egoerarekin alderatuta, kudeaketarengatiko dedikazio maila ia berdinei eusten zaie, baina aurrez jasota ez zeuden kargu batzuk gehitu dira.

5. Adinarengatiko kenkaria ezabatu da, 60 urte izan eta dedikazio osoa duten IIL iraunkorren-tzat aurreikusitakoa.

III.2.3.5. IILek irakaskuntzaz besteko jarduera batzuetan jarduteari buruzko azterketa

Aurreko atala kontuan hartuta, ondoren azaltzen dira unibertsitateko IILen multzoaren irakas-kuntza-ahalmenaren gainean nolako eragin kuantitatiboak daukan irakaskuntzaz besteko jardue-rengatiko orduen aitortpenak. Atal horrekin bat, bi denbora-esparru bereizten dira, eta bi esparru horien azterketa konparatiboa eginez amaitzen da.

A) 2008-2009 ikasturtetik 2011-2012 ikasturtera.

2008/09 ikasturtetik 2011/12 ikasturtera bitarteko epeari buruz daukagun informazioaren ara-bera, honako arrazoiak daude IILek irakaskuntza-jarduera teorikoa gutxitzea dakarten beste jar-duera batzuetan jarduteko, aurreko atalean azaldu den bezala: ikerketarako dedikazio berezia, unibertsitateko karguak betetzea eta adin jakin batera iristea, IIL funtzionarioen kasuan.

Beste jarduera batzuetarako gehikuntza horiek benetako irakaskuntza-jarduera gutxitzea da-karte beraiekin, eta jaitsiera horri giza baliabide berriekin erantzun beharko zaio ezinbestean, edo daudenen dedikazioan doikuntzak eginez.

Ikasturte hauetan IIL iraunkorrei –hau da, irakaskuntza kidegoetako irakasleei eta doktore di-ren irakasle kontratatuei– aitortutako orduen bilakaera, laburturik, honako taulan adierazitakoa da, asteko ordu-kopuruan neurtuta:

IIL iraunkorrak	2008-2009 ikasturtea	2009-2010 ikasturtea	2010- 2011 ikasturtea	2011-2012 ikasturtea
IIL iraunkorren kopurua	417	430	441	432
Irakaskuntza-ahalmen teorikoaren orduak (astean)	3.478,00	3.572,00	3.642,00	3.518,50
Beste jarduera batzuetarako aitortutako orduen kopurua (astean)	805,40	865,50	877,70	905,70
Adierazlea	100	107	109	112
Irakasle bakoitzaren batez besteko aitortpena	1,93	2,01	1,99	2,10
Beste jarduera batzuen erabileraren ehunekoa	23,16	24,23	24,10	25,74

Datu horiek guztiak aztertuta, honako hauek dira aipagarri:

- Beste jarduera batzuetarako aitortutako orduen guztizko kopuruak ehuneko 12 egin du gora aztertutako aldian, 805,40 ordu izatetik 905,70 izatera pasa baitira.

- Igoera hori handiagoa da irakasle eta ikertzaile diren langile iraunkorren kopuruan – ehuneko lau– eta asteko irakaskuntza-ahalmen teorikoan –ehuneko bat– gertatutakoa baino.

- Irakasle bakoitzaren batez bestekoa ehuneko bederatzi handitu da: 1,93 ordutik 2,10 ordua.

- Beste jarduera batzuetarako dedikazioaren guztizko ehunekoa pixkanaka handitzen joan da aztertutako urteetan, azken ikasturtean gehieneko baliora iristeraino: ehuneko 25,74. Hau da, ikasturte honetan, irakaskuntza-ahalmena, orokorrean, laurden batean jaitsi da.

- Irakaskuntzako asteko 8,3 orduko batez besteko lanaldi baterako, IIL iraunkorrek 2011-12 ikasturtean beste jarduera batzuetarako 2,10 orduko batez besteko dedikazioa izan dute.

- 2. taulan, beste jarduera batzuetarako dedikazioaren bilakaera erakusten dugu, dedikazio horren izaeraren arabera antolatuta. Azken batean, azken ikasturteari dagokionez, kudeaketaren ondoriozkoa ehuneko 42koa izan zen; ikerketari lotutakoa ehuneko 27koa; adinagatik lortutakoa ehuneko 20koa, eta beste arrazoi batzuegatik gertatutakoa % 11koa. Horrenbestez, ikusten da goranzko joera bat dagoela beste jarduera batzuetarako dedikazioaren arrazoi guztietan.

- 3. taulan adierazten dira bai beste jarduera batzuetarako dedikazio-orduen zenbatekoa, bai horrek irakaskuntza-ahalmenean egiten duen ehuneko ere, irakaskuntza kategorian bakoitzaren arabera. Ikusten den bezala, katedradunek beste jarduera batzuetarako duten dedikazioaren ehuneko batez bestekotik gorakoa da lau urteetan, eta haien balioa gradualki gora egiten joan da; unibertsitateko irakasle titularrak batez bestekoaren inguruan kokatzen dira. Halaber, adierazi beharra dago eskolako irakasle titularren ehunekoak pixkanaka gora egin duela.

Kudeaketari buruzko txostenean adierazi bezala, beste jarduera batzuetarako dedikazioaren bolumen handiagoa antzematen da kategorian handieneko irakasleengan, hain zuzen ere beren ikasleei jakintza transmititzeari dagokionez kalitate handiagoa dutenengan. Hala eta guztiz ere, hurrengo B atalean adierazten dugun bezala, IILek beste jarduera batzuetan izaten duten dedikazioaren egoera orokorra Estatuko araudi berriaren aplikazioaren ondorioz aldatu da.

2. taula. Beste jarduera batzuetarako orduen aitortpena, jardueraren izaeraren arabera sailkatutako asteko orduetan adierazita

IIL iraunkorrak Izaeraren arabera	2008-2009 ikasturtea		2009-2010 ikasturtea		2010-2011 ikasturtea		2011-2012 ikasturtea	
	Asteko dedikazioa	Ehunekoa	Asteko dedikazioa	Ehunekoa	Asteko dedikazioa	Ehunekoa	Asteko dedikazioa	Ehunekoa
Kudeaketa	357,2	44,35	384,3	44,4	381,7	43,48	377,6	41,69
Ikerketa	241,9	30,03	247,1	28,55	241,1	27,47	248,1	27,39
Adina	144,5	17,94	169	19,53	180,1	20,52	182	20,09
Beste arrazoi batzuk	61,9	7,69	65,1	7,52	74,8	8,53	98	10,82
Guztira	805,42	100	865,5	100	877,7	100	905,7	100

3. taula. Beste jarduera batzuetarako orduen aitortpena, irakaslearen kategoriaren arabera sailkatutako asteko orduetan adierazita

IIL iraunkorrak Kategoriaren arabera	2008/09 ikasturtea		2009/10 ikasturtea		2010/11 ikasturtea		2011-2012 ikasturtea	
	Asteko dedikazioa	Irakaskuntza-ahalmenean egiten duen ehunekoa	Asteko dedikazioa	Irakaskuntza-ahalmenean egiten duen ehunekoa	Asteko dedikazioa	Irakaskuntza-ahalmenean egiten duen ehunekoa	Asteko dedikazioa	Irakaskuntza-ahalmenean egiten duen ehunekoa
Unibertsitateko katedraduna. 6 ordu	152,05	31,16	222,15	34,71	229,57	34,57	274,4	37,28
Unibertsitateko katedraduna. 6 ordu			0,5	8,33	1	8,33	0,5	8,33
Unibertsitate Eskolako katedraduna	30,1	34,2	22,85	28,56	22,75	28,44	28,5	35,63
Unibertsitateko titularra	457,07	23,71	428,95	23,21	436,93	22,95	417,8	23,07
Unibertsitateko titularra. 6 ordu	2	0,24	1,5	2,78	1	1,85	1,0	2,08
Unibertsitate Eskolako titularra	125,15	15,16	126,4	27,72	118,4	29,02	109,2	34,16
Doktorea den irakasle kontratatua	39,05	4,73	63,15	12,94	68,05	13,09	74,3	14,51
Orokorra, guztira	805,42	23,16	865,5	24,23	877,7	24,1	905,7	25,24

Azkenik, hurrengo taulan erakusten dugu nolako bilakaera izan duten unibertsitateko IILen **gutzizkoari** –hau da, irakasle iraunkorrei eta kontratatuei– aplikatutako ordu gutxitzeak.

IIL iraunkorrak + ez iraunkorrak	2008-2009 ikasturtea	2009-2010 ikasturtea	2010-2011 ikasturtea	2011-2012 ikasturtea
IIL iraunkorren + ez iraunkorren kopu-	921	946	926	927
Irakaskuntza-ahalmen teorikoaren or-	5.951	6.099	5.886	5.788
Beste jarduera batzuetarako aitortutako orduen kopurua (astean)	895,2	988,3	907,7	937,6
Adierazlea	100	110	101	105
Irakasle bakoitzaren batez besteko ai-	0,97	1,04	0,98	1,01
Beste jarduera batzuen erabileraren	15,00	16,20	15,40	16,20

B) 2012-2013 ikasturtetik aurrera.

Unibertsitatean Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege-dekretua aplikatzeak eragina izan du IILek beste jarduera batzuetan ematen dituzten orduen zenbatespenean, zeren eta, jada aipatu dugun bezala, irakaskuntza-ahalmena aitortutako seiurtekoekin lotzen baita. Hau da, IIL bakoitzarentzat kalkulatu den irakaskuntza-ahalmena finkatuko da aitortuta dauzkan seiurteko bizien arabera.

Hartara, 2012-13 ikasturtean IIL iraunkorrek beste jarduera batzuetarako aitortuta izan dituzten orduak, asteako orduetan neurtuta, honako taulan laburturik adierazitakoa da:

IIL iraunkorrak	2012-2013 ikasturtea
IIL iraunkorren kopurua	433
Irakaskuntza-ahalmen teorikoaren orduak (astean)	3.343,50
Beste jarduera batzuetarako aitortutako orduen kopurua (astean)	504,83
Irakasle bakoitzaren batez besteko aitortpena	1,17
Beste jarduera batzuen erabileraren ehunekoa	15,10

Beste jarduera batzuetarako eta aipatutako ikasturterako aitortutako orduen izaeraren eta jatorriaren arabera xehetasunak honako taulan erakusten direnak dira. Azken batez, kudeaketaren ondoriozkoek ehuneko 63 egiten dute; ikerketakoek ehuneko 27 eta beste arrazoi batzuetakoek, azkenik, ehuneko 10.

IIL iraunkorren beste jarduera batzuk. Izaeraren arabera	2012-2013 ikasturtea	
	Asteako dedikazioa	Ehuneko
Kudeaketa	319,23	63,24
Ikerketa	137,5	27,24
Adina	-	-
Beste arrazoi batzuk	48,1	9,52
Guztira	504,8	100

Ondoren, orduen multzoa erakusten dugu, irakasleen kategoriaren arabera sailkatua. Ikusten den bezala, katedradunek aitortutako orduen ehuneko handiagoa daukate, batez beste. Batez bestekotik hurbil, doktoreak diren irakasle kontratatuak daude, bai eta unibertsitateko irakasle titularrak ere.

Azkenik, hurrengo taulan erakusten dugu zenbat ordu aitortu zaizkion unibertsitateko IILen

IIL iraunkorren beste jarduera batzuk. Kategorien arabera	2012-2013 ikasturtea	
	Asteko dedikazioa	Irakaskuntza-
Unibertsitateko katedraduna	143,1	23,36
Unibertsitateko katedraduna. 6 ordu	0,5	8,33
Unibertsitate Eskolako Katedradunak	1,3	2,00
Unibertsitateko titularra	255,2	13,79
Unibertsitateko titularra. 6 ordu	1,0	2,38
Unibertsitate Eskolako titularra	17,0	9,29
Doktorea den irakasle kontratatua	86,9	14,77
Orokorra, guztira	504,8	15,10

guztizkoari –hau da, irakasle iraunkorrei eta kontratatuei– 2012-2013 ikasturtean.

IIL iraunkorrek + ez iraunkorrek	2012-2013 ikasturtea
IIL iraunkorren + ez iraunkorren kopurua	886
Irakaskuntza-ahalmen teorikoaren orduak (astean)	5.381,00
Beste jarduera batzuetarako aitortutako orduen kopurua (astean)	537,28
Irakasle bakoitzaren batez besteko aitortpena	0,61
Beste jarduera batzuen erabileraren ehunekoa	9,98

C) Bi egoeren alderaketa.

Abiapuntuko premisa da bi egoerak ez direla guztiz alderagarriak, zeren eta 2011-12 ikasturtera arte irakaskuntza-ahalmena zuzenean finkatzen baitzitzaion IIL bakoitzari, alde batera utzita ikerketako zenbat seiurteko aitortuta zeuzkan. Ikasturte horretatik aurrera, ordea, irakaskuntza-ahalmena aurrez finkatzen da, IIL bakoitzak bere seiurtekoen arabera daukan egoera pertsonalaren arabera.

Irizpide aldaketa horrek eragina du bai IILaren irakaskuntza-ahalmen orokorraren kuantifikazioan, bai ikerketarako aitortutako orduen zehaztapenean ere.

Premisa hori kontuan hartuta, ondoren 2011-12 eta 2012-13 ikasturteak alderatu ditugu, IIL iraunkorren kasuari erreparatuta:

- IIL iraunkorren multzoak astean duen irakaskuntza-ahalmena. IILen kopurua ia berdina izanda, ehuneko bost gutxitu da; hau da, asteko 175 ordu. Horren jatorria izan da seiurtekoak hartu direla kontuan irakaskuntza-ahalmena kalkulatzeko orduan.
- Beste jarduera batzuetarako aitortutako orduen kopurua. Nabarmen gutxitu da, ehuneko 44 hain zuzen; hau da, asteko 400,87 ordu. Dedikazio-ordu horiek zehazteko aplikatutako arrazoian sinpletzearen eta gutxitzearen emaitza da, irakaskuntza-ahalmena zehazteko seiurteko biziak hartu baitira kontuan.
- Irakasle bakoitzari aitortutako orduen batez bestekoak ere behera egin du, asteko 2,10 ordu izatetik 1,17 izatera pasa baitira.
- Irakaskuntza-ahalmeneko orduak beste jarduera batzuetarako erabiltzearen ehunekoak ere behera egin du nabarmen, zeren eta ehuneko 27,74 izatetik ehuneko 15,10 izatera pasa baita.
- Dedikazio horren izaerari erreparatuta, nabarmendu behar dugu adinaren ondoriozkoa desagertu dela; kudeaketa ehuneko 15 jaitsi dela; eta ikerketan, funtsean, seiurtekoak kontuan hartzen ez direnez, jaitsiera nabarmena izan dela, ehuneko 45ekoa hain zuzen.
- Kudeaketaren arloko dedikazioan, irakaskuntza-ahalmena finkatzeko seiurteko indardun edo biziak eskatzea kaltegarria izan daiteke kudeaketa lanetan diharduten IILentzat, beren lanpostura itzultzen direnean.

- Irakasle kategoriaren arabera, beste jarduera batzuetarako orduen gutxitzerik handienak aurkitu dira eskolako irakasle titularrengan –ehuneko 84–, unibertsitateko katedradunengan –ehuneko 48– eta unibertsitateko titularrengan –ehuneko 39–.

Azken batez, aurreko datuek erakusten dute aldaketa bat gertatu dela 2011-12 ikasturtera arteko gozko joeran, unibertsitateko IIL iraunkorrek beste jarduera batzuetara dedikatutako orduei dagokienez. Joera aldaketa horrek berarekin dakar langile horiek irakaskuntzan ordu batzuk eman behar izatea, eta horrek, halaber, eragina du beharizan horietarako behar diren aldi baterako irakasleen kopuruan.

III.2.3.6. IILen ordainsarien tarte autonomikoa

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak dio banakoen merituei lotutako irakasle eta ikertzaile funtzionarioentzako ordainsarizko osagarri bidezko ordainsari gehigarriak autonomia-erkidegoen eskumena direla; hala, Nafarroan, apirilaren 20ko 37/2009 Foru Dekretuaren bidez onartzen dira, hartan jasotzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoan denbora osoko dedikazioa duten irakasle eta ikertzaile funtzionarioei irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-arloko banakoen merituengatik ordainsarizko osagarriak esleitzeko araubidea.

Osagarri horiek pertsonalak, banakakoak, metagarriak eta bateragarriak dira, kasuan kasuko merituaren balorazio positiboa egin ondoren. Lanaldi osoko irakasle-kidegoetako IILei baizik ezin izanen zaizkie esleitu.

Gizarte Kontseiluari dagokio, NUPeko Gobernu Kontseiluak proposatuta, osagarri horiek esleitzea; hauek dira osagarri-motak:

- Irakaskuntzakoak, banakoen merituengatik, irakaskuntza-jardueraren ebaluazioaren arabera (bosturtekoak).
- Ikerketakoak, banakoen merituengatik, ikerketa-jardueraren ebaluazioaren arabera (seiurtekoak).
- Kudeaketa instituzionalari lotutakoak, banakoen merituengatik, NUPeko kudeaketa-arduren ebaluazioaren arabera.

Osagarri horiekin, beraz, ordaintzen dira jada IILen estatuko lansarien egituran jada jasota dauden kontzeptuak.

Azken batean, indarrean jarraitzen du gai horri buruz kudeaketa txostenean jasotako gogoe-tak: “Nafarroako Gobernuarekin eta Gizarte Kontseiluarekin batera, egungo ordainsari-tarte auto-nomikoa zehazteko oinarri diren kontzeptuak berriz aztertu ahal izatea, ordainsari hori unibersi-tate-jardueraren helburu zehatzak lortzeko tresna gisa erabiltzeko”.

III.2.3.7. IILei buruzko beste alderdi batzuk

- Irakaskuntzaren ebaluazioa.

NUPeko irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko metodoaren arabera –ANECaK egiaztatutako meto-doa da–, urtero boluntarioki ebaluatzen dira beste “bosturteko” bat edo irakaskuntza merituengatik lansari-osagai bat eska dezaketen irakasle-kidegoetako irakasleak; halaber, ebaluazio horietan sartzen da horixe eskatzen duten doktore diren irakasle kontratatuen eta doktore laguntzaileen ira-kaskuntza-jarduera.

Hurrengo taulan eman ditugu irakasle-kidegoentzat 2009tik 2011ra lortu diren emaitzak:

Irakasle-kidegoetako irakaskuntzaren ebalua-	2009	2010	2011
Bikaina	4	2	3
Oso aldekoa (*)			24
Aldekoa	50	59	33
Aldekoa, hobetzeko proposamenarekin (*)			2
Ez aldekoa	0	0	0
Ebatzi gabe	3	2	1
Ebaluatuak, guztira	57	63	63
Ebalugarriak, guztira	62	67	63

(*) 2011tik dira aplikatzekoak

- Lanposturik gabeko kreditatuak.

Unibertsitateak emandako informazioari jarraituz, txosten hau idazteko garaian guztira 53 enplegatu daude NUPen ANECAren bitartez legez kreditatu direnak katedradun eta titular lanpostuetara sartu ahal izateko alde zuzeneko ezinbesteko baldintza gisa, baina, unibertsitateen deialdi ofizialik egon ez denez, ezin izan direnak haietara aurkeztu.

Honakoetarako kreditatua	Langile-kopurua
Katedraduna	21
Titularra	32
Lanposturik gabeko kreditatuak, guztira	53

Espainiako unibertsitateen guztizkoan, jo da lanposturik gabeko kreditatuak, guztira, 5.000 irakasle inguru direla. Horrenbestez, kreditatze sistema ia kolapsaturik dago, irakasle funtzionarioen lanpostuetarako deialdirik egiten ez delako.

- IILen absentismoa.

Txosten honen eraginetarako, absentismotzat jotzen da lanpostutik modu justifikatuan falta izatea.

Unibertsitateak emandako informazioaren arabera, hurrengo taulan erakutsi dugu IILen absentismoaren bilakaera, honako arrazoiak tarteko: lan istripuak, aldi baterako ezgaitasuna eta amatasun/aitatasun baimenak. Ikusi dugu enplegatuen kopuruak eta, neurri txikiagoan, galdutako egunek gora samar egin dutela. Hiru urte horien batez besteko gisa, inguruabar horietan dagoen langilearen baja 44 egun ingurukoa da.

Arrazoiak	2010		2011		2012	
	Zenbat langile	Zenbat egun	Zenbat langile	Zenbat egun	Zenbat langile	Zenbat egun
Lan istripua	1	40	2	347	2	64
Lanekoa ez den istripua	2	98	0	0	1	19
Gaixotasun arrunta	88	2.992	98	4.343	113	4.121
Amatasuna	25	1.938	30	2.361	27	2.366
Aitatasuna	12	182	16	228	13	196
Gaixotasunean berretortzea	4	135	3	50	3	41
Orokorra, guztira	132	5.385	149	7.329	159	6.807

Aurreko datuek erakusten dute aipatzeko moduko ehunekoa eta kopurua aurkitu direla, eta horrek eragin garrantzitsua du irakaskuntza-jardueran. Hala eta guztiz ere, arau orokor gisa, sailek beren bitartekoez betetzen dute absentismoaren ondoriozko irakaskuntza.

III.2.4. Ikerketa

Ikerketaren arloan, honakoak adieraz behar ditugu:

A) Ikerketari buruzko honako magnitude eta adierazleen bilakaera, 2009tik 2012ra.

Ikerketari buruzko magnitude eta adierazleak	2009	2010	2011	2012
Ikerketaren arloko aurrekontu gastua, guztira	10.328.969	10.233.529	9.979.879	10.506.997
Ikerketaren bidez lortutako diru-sarrerak, guztira	9.154.603	7.130.949	7.576.968	5.828.777
Ikerketagatik lortutako baliabide pribatuak	3.317.690	2.573.896	2.321.157	1.461.467
Izenpetutako ikerketa kontratuak, guztira	127	141	122	120
Izenpetutako ikerketa proiektuak, guztira	53	51	53	28
Ikerketa zentroak	2	2	2	2
Ikerketa-taldeen kopurua	104	105	110	111
Irakurritako tesien kopurua	36	36	48	48
Aitortutako seiurtekoen kopurua, guztira (NUPen	564	559	637	672

- Ikerketari egoztekoa zaion aurrekontu gastua pixka bat igo da, ehuneko bi; ikerketaren bidezko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 36 egin dute behera. Diru-sarreren jaitsiera horren arrazoia dira administrazio publikoetatik zein, bereziki, esparru pribatutik heldu direnak –ehuneko 56 txikiagoak dira– jaitsi izatea. Horri dagokionez, zehaztu beharra dago krisi ekonomikoa aipatzeko moduko eragina izaten ari dela ikerketarako kontratazioetan eta, horrenbestez, hartatik heldu diren diru-sarreretan.

- 2012ko aurrekontu-gastuak ikerketarako ekipamenduaren arloko inbertsioak sartzen dira – 0,7 milioi euro–, zeinak finantzatzen baitira Iberus Nazioarteko Bikaintasun Campusaren deklarazioetik heldu diren zuzkidurekin.

- Ikerketaren arloko gastuak eta diru-sarrerak unibertsitateko gastuen eta diru-sarreren aurrekontu osoan egiten duten ehunekoa hurrengo taulan ageri dena da:

Ikerketak zenbat egiten duen aurrekontuaren guztizkoan	2009	2010	2011	2012
Ikerketaren gastuak gastu osoan zenbat egiten duen	12,63	12,75	12,74	13,99
Ikerketaren bidezko diru-sarrerak diru-sarreren guztizkoan zenbat egiten duten	11,60	8,63	9,51	8,20

Ikusten den bezala, ikerketarako gastuek unibertsitatearen gastuaren guztizkoan egiten duten ehunekoa pixkanaka gora joan izan da; alderantziz gertatu da, ordea, ikerketarako diru-sarrerekin, zeren eta behera egin baitute, bereziki 2012an.

- Ikerketarako kontratuen kopuruari eutsi egiten zaio, gutxi gorabehera, aztertutako aldian; proiektuen kopuruak, ordea, nabarmen egin du behera (izenpetutako 53 proiektutik 28 proiektura).

- Aitortutako ikerketa taldeek ehuneko 7 egin dute gora, eta 2012an 111 izatera iritsi dira.

- Lanean ari diren IIL funtzionarioei aitortutako seiurtekoek ehuneko 19 egin dute gora; 2012an, 672 dira. Horrek ongi erakusten du zenbaterainoko kanpoko aitortpena duen unibertsitateko IILek egiten duten ikerketa-lana.

Hurrengo taulan erakutsi ditugu 2012ko abenduaren 31n lanaldi osoan diharduten II Leko lortu-tako seiurtekoen xehetasunak:

Seiurtekoa daukaten irakasleen kopurua (2012-12-31)/Seiurtekoak	1	2	3	4	5 edo gehiago	Seiurtekoak, guztira
Unibertsitateko katedraduna		20	34	24	11	296
Unibertsitateko titularra	85	83	33	1		354
Unibertsitate Eskolako Katedradunak	1	3		1		11
Unibertsitate Eskolako titularra		1				2
Emeritua				1	1	9

Gainerako II Leko metatu dituzten seiurtekoari buruzko daturik ez dago.

B) Ikerketaren zeharkako kostuak.

Ikerketaren kostua zein den jakitea erabakigarria da unibertsitatearentzat, behar bezala kuantifikatzeko zein den kostuaren eta prezioaren arteko erlazioa eta zer ekarpen egiten duen unibertsitatearen karga orokorretan; horri esker, besteak beste, hauek galarazten dira: balizko deskapitalizazioa, azpiegituren hondatzea haietarako behar den amortizazioa eduki gabe eta lehia desleialean sartzeko arriskua.

Oro har, badirudi zentzuzkoa dela unibertsitateak ikerketa-proiektuen eta -kontratuen ondorio diren kostuak guztiz berreskuratzeko asmoa izatea. Kostu horien artean, laburtuta, bi multzo bereizten ditugu:

- Zuzeneko kostuak, zeinak zuzenean ikerketarekin lotuta dauden eta zehaztasunez egotzi ahal zaizkion kontratuari, identifikatuta eta kuantifikatuta egoteagatik.
- Zeharkako kostuak: administrazio- eta zerbitzu-jarduera orokorrekin eta ekipamenduen amortizazioarekin zerikusia dutenak; dagokien kontratuari egotzeko, beharrezkoa da ondo zehaztutako banaketa-irizpideak izatea.

Espainiako unibertsitateetan, ikerketa-kontratuen aurrekontuan, hauek izan ohi dira: barne- eta kanpo-ikertzaileen ordainsariak; ekipamenduetan eta haiek abiarazteko behar den eta inbentarioan ezin jaso daitekeen materialean egindako inbertsioaren zenbateko osoa; eta zeharkako kostuen tasa edo ehunekoa.

Unibertsitateek, oro har, kostuak kalkulatzeko sistemarik ez dutenez, zeharkako kostuak egotzeko tasa hori, normalean, hautazko eran eta/edo beste unibertsitate batzuetan aplikagarria denarekin erlazioan finkatzen da.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2007ra arte ez zegoen arloari buruzko araupetze berariazkorik. OTRI kontratuetan, zenbateko garbiaren % 10eko atxikipena aplikatzen zen, eta atxikipen hori kopuru beretan banatzen zen proiektua hartzen zuen sailaren eta unibertsitatearen artean, gastu orokorreari aurre egiteko; gainerakoari dagokionez, eta hala egokituz gero, emakidarako araubidean adierazitakoa baliatzen zen.

2008ko urtarrilean, Lan Zientifikoak, Teknikoak edo Artistikoak egiteko Kontratazio Erregelamenduan, erabaki zen % 13koa izanzen dela zenbateko garbi baliagarrian zeharkako kostuengatik atxiki daitekeen ehunekoa (% 5 sailarentzat eta % 8 unibertsitatearen gastu orokorrentzat); Jeronimo de Ayanz zentroaren barruan egindako proiektuei dagokienez, atxikipen-ehunekoa % 15koa izanzen da (% 7 zentroarentzat eta % 8 unibertsitatearentzat). Ez dago egiaztatutako metodologiarik aurreko ehunekoak oinarritzeko.

Ehuneko horiei balio berdinetan eusten zaie txosten hau idazteko garaian. Honakoak ziren, laburbilduta:

Zeharkako kostuen atxikipen-ehunekoak	
Unibertsitatearen proiektuak	Ehunekoak
Saila	5
Unibertsitatea	8
Guztira	13
J. Ayanz zentroaren proiektuak	Ehunekoak
Jerónimo Ayanz zentroa	7
Unibertsitatea	8
Guztira	15

Kostuen kontabilitatea ezartzeko prozesua amaitzeak aukera emanen du zehaztasunez finkatzeko zenbatekoak diren ikerketatik heldu diren zeharkako kostuak, eta unibertsitateko gobernu-organoei ehuneko doituago bat ezarri ahalko dute haiek egozteko eta berreskuratzeko.

Finantzaketa publikoa duten proiektuen kasuan, erakunde emaileak bere emate-araudian zehazten du gastu orokorren zer ehuneko onartzen den; eta hala, Plan Nazionaleko proiektuetan, ehuneko hori % 21ekoa da (5 sailarentzat, eta 16 unibertsitatearen gastu orokorretarako); beste administrazio batzuek % 10 izatea erabaki dute (sailaren eta unibertsitatearen artean banatu beharrekoa); are gehiago, beste batzuek (Nafarroako Gobernuak, adibidez), normalean ez dituzte onartzen gastu hautagarri gisa.

C) Ikerketarako egitura administratiboa.

Ikerketaren kudeaketaren administrazio-egitura Ikerketa Errektoreordetzari atxikitako Ikerketa Zerbitzuan biltzen da.

Zerbitzu horrek ikerketa- eta jakintzaren transferentzia-proiektuekin egindako prozesuak eta ikerketa-jarduera horri lotutako deialdiak kudeatzen ditu. Haren funtsezko egitekoa da babes tekniko eta administratiboa ematea ikerketarako zuzkidurei eta proiektuen finantzaketa-emaileek eskatutako baldintza administratiboen betetzeari. Hau da, haren eginkizunak gehiago dira administratiboak baliabide berriak erakartzekoak baino; izan ere, azken horretaz arduratzen dira, funtsean, IILak berak.

Zerbitzu horri atxikitako langileak 25 dira, eta kopuru horri eutsi egin zaio 2009tik. Maien/taldearen arabera, honakoak dira xehetasunak:

Taldea edo maila	Langile-kopurua
A	7
B	4
C	5
D	9
Guztira	25

Ikus daitekeen bezala, A eta B taldeetako langileak ehuneko 44 dira; C eta D taldeetakoak, berriz, ehuneko 56 dira.

2012an, zerbitzu honen gastua 0,64 milioikoa izan da guztira; horietatik, ehuneko 98 langile-gastuak dira.

Hurrengo taulan erakusten dugu nolako bilakaera izan duten ikerketa-kontratu eta -proiektuen bitartez guztira lortu diren diru-sarrerek eta laguntzako langileek lortutako batez besteko diru-sarrerek. Ikusten den bezala, adierazle biek proportzio berean egin duten behera; ehuneko 36, hain zuzen.

Ikerketa	2009	2010	2011	2012
Lortutako diru-sarrerak, guztira	9.154.603	7.130.949	7.576.968	5.828.777
Langile bakoitzeko diru-sarrerak	366.184	285.238	303.079	233.151

Horri dagokionez, zehaztu beharra dago ezen ikerketa proiektuek berez daukaten zailtasun administratiboa modu aipagarrian igotzen joan dela denboran zehar.

III.2.5. Administrazio eta Zerbitzuetako langileak (AZL)

Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileei (AZL) dagokienez, honakoak adierazi behar ditugu:

- Plantilla organikoa.

Beste ezer baino lehen, zehaztu beharra dago 2009.a lehenengo urtea dela AZLen plantilla organikoa argitaratzen dena foru araudiko baldintzen arabera, AZLen araubide juridikoa araudi horri egokitzeko epea iragan eta gero.

AZLen 2009-2012 urteetako bilakaera hurrengo taulan adierazitakoa da:

AZLen plantilla organikoa	2009	2010	2011	2012
Modu iraunkorren betetako lanpostuak	314	313	315	323
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	113	121	130	125
Bete gabeko lanpostu hutsak	77	81	69	71
Plantilla organikoko lanpostuak, guztira	504	515	514	519
Adierazlea	100	102	102	103

Plantillako lanpostuen guztizko kopuruak 15 lanpostutan egin du gora; hau da, ehuneko hiru. Lanpostu horietatik hutsik –bete gabe edo aldi baterako beteta– dauden portzentajea ehuneko 38aren ingurukoa da.

Hurrengo taulan, ekitaldi bakoitzeko AZL langileen kopurua erakusten dugu:

AZLak	2009	2010	2011	2012
Langile-kopurua	496	489	488	483
Adierazlea	100	99	98	97

Ikusten den bezala, kopurua behera egiten joan da pixkanaka. 2012an, guztira 13 lanpostu gutxiago daude. Horrek ehuneko hiruko beherakada dakar.

- Lanaldia.

AZLen lan orduen bilakaera hurrengo taulan erakusten duguna da.

AZLen lanaldia	2009	2010	2011	2012 (*)
Eguneko lanorduak	7,25	7	7	7,5
Urteko lanorduak	1.688,60	1.608,50	1.609,00	1.728,80
Urteko oporretako orduak	174	162	162	174
Urteko orduak, guztira	1.514,60	1.446,50	1.447,00	1.554,80

(*) Urte osoari bigarren seihilekorako onetsitako egutegia aplikatuta

Nabarmentzekoa da ezen 2012an lanaldi hori Nafarroako Gobernuak hartutako aparteko neurrian arabera egokitu zela; horrek berarekin ekarri zuen lanaldi hori eguneko 30 minututan luzatzea.

Hala eta guztiz ere, 2012an unibertsitateko AZLen urteko orduen guztizko kopurua 37,20 ordutan txikiagoa zen Foru Komunitateko Administrazioan aplikatzen dena -1.592 ordu- baino. 2009an, alde hori 74,44 ordukoa zen.

- Oporrak

Opor-egunak urtean 43 dira; 2009arekin alderatuta egun bat gehiago dago, zentroko zaindariaren eguna.

AZLen opor-eguna (1)	2009	2010	2011	2012
Oporrak	24	24	24	24
Norberaren aferak	6	6	6	6
Unibertsitatearen Eguna	1	1	1	1
Zaindariaren Eguna		1	1	1
Eguberriak	2	2	1	2
San Fermin/Santa Ana	4	4	4	4
Egun libreak (2)	5	5	6	5
Guztira	42	43	43	43

(1) Langile bakoitzari Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 7/2007 Legea aplikatuz langile bakoitzari legokiokeena kontatu gabe; halere, 2012an, emandako zerbitzuen ondoriozko antzinasunetik heldutakoak kendu dira.

(2) Eguberrietako eta Aste Santuko opor-egunei dagokie.

- Prestakuntza.

Unibertsitateko AZLek urtean, batez beste, hartzen dituzten prestakuntza egunak urtean 26 inguru dira. Ez da aipatzeko moduko aldaketarik aurkitu aztertutako aldian.

AZLen prestakuntza	2010	2011	2012
Urteko orduen batez bestekoa	25,23	25,59	26,56

- Absentismoa.

Txosten honen eraginetarako, absentismotzat jotzen da lanpostutik modu justifikatuan falta izatea.

Hurrengo taulan erakuts dugu zein izan den galdutako kasu eta lanaldien bilakaera 2010-2012 urteetan. Hiru ekitaldietako batez bestek gisa, inguruabar horietan enplegatu bakoitzak 29 lanaldi galdu ditu.

Absentismoaren arrazoia	2010		2011		2012	
	Kasuak	Galdutako lanaldiak	Kasuak	Galdutako lanaldiak	Kasuak	Galdutako lanaldiak
Amatasuna	21	1.553	14	1.226	14	1.232
Aitatasuna	10	147	12	165	8	136
Gaixotasun arrunta	211	5.128	149	4.731	234	4.209
Lan-istripuak	5	157	2	43	3	77
Beste batzuk	2	49	2	67	5	331
Guztira	249	7.034	179	6.232	264	5.985

Ikus daitekeen bezala, absentismo kasuek ehuneko sei egin dute gora; galdutako lanaldiek, aldiz, ehuneko 15 behera egin dute. Galdutako lanaldi horien ehuneko 70ean arrazoia gaixotasun arruntak dira.

Aurreko datuek erakusten dute aipatzeko moduko ehunekoa eta kopurua aurkitu direla, eta horrek eragin garrantzitsua du NUPen jarduera administratiboan.

III.3. IKASLEEI ETA TITULAZIOEI BURUZKO ADIERAZLEAK (2009-2010 IKASTURTETIK 2012-2013 IKASTURTERA).

Oro har, ondoren aztertzen dugun informazioa lau ikasturte horiei dagokie; hala eta guztiz ere, 2012-13 ikasturteko datu batzuk ez daude erabilgarri.

Arlo honetan, honako alderdiak nabarmenduko ditugu:

- Ikasketen/titulazioen mapa.

Aztertutako aldian batera daude unibertsitatean lizentziatura zein diplomatura titulazioak eta graduak. Logikoa denez, lehenengoak desagertzen doaz gradu ikasketak ezartzen doazen neurrian. Hartara, 2009-2010 ikasturtean eta 2012-2013 ikasturtean, honako titulazioak zeuden:

Ikasketen mapa / titulazio kopurua	2009-2010	2012-2013
1. eta 2. zikloetako titulazioak	24	8
Graduko titulazioak	2	18
Master ofizialak (1) (2)	12	28
Doktorego programak (1) (2)	12	21
Berezko tituluak eta etengabeko prestakuntza	14	28

(1) 2009-2010 ikasturtean, 7 master eta 4 doktorego-programa irakasten dira zenbait unibertsitatearen artean.

(2) 2012-2013 ikasturtean, 8 eta 5 dira, hurrenez hurren.

Ziklo eta graduetako titulazio ofizialak egonkor mantentzen dira aztertutako aldian: 26 dira. Alabaina, Europako Goi Mailako Hezkuntza-gunea (Bologna Plana) ezartzearen ondorioz, lizentziatura eta diplomatura titulazioak gradu-titulazio bilakatzen joan dira.

Halaber, nabarmentzekoa da gainerako ikasketetan izandako igoera, ia bikoiztu baitira.

Ikasleen araberako banaketa hurrengo taulan erakusten duguna da.

Ikasketen mapa / ikasle kopurua	2009-2010 ikasturtea		2012-2013 ikasturtea (b)	
	Ikasle kopurua	Ikasleek guztizkoan zenbat egiten duten	Ikasle kopurua	Ikasleek guztizkoan zenbat egiten duten
1. eta 2. zikloetako titulazioak	7.079	79	1.986	23
Graduko titulazioak	293	3	4957	56
Master ofizialak	597	7	627	7
Doktorego programak	270	3	296	3
Berezko tituluak eta etengabeko prestakuntza	723	8	1.010	11
Guztira	8.962	100	8.876	100

(b) Behin-behinekoak

Logikoa den bezala, lizentziaturetako eta diplomaturetako ikasleen kopurua nabarmen behera egiten joan da ikasketa horiek desagertzen joan diren neurrian; aldi berean, gradu ikasketek nabarmen egin dute gora.

Halaber, nabarmendu beharra dago gora egin dutela masterretako ikasleen kopuruak –ehuneko bost–, doktoregoa egiten ari direnen kopuruak –ehuneko hamar– eta berezko ikasketak egiten ari direnen kopuruak –ehuneko 40–; igoera horren arrazoia da horrelako tituluen eskaintza handitu dela eta lanbide jakin batzuetan jarduteko haietan matrikulatzeko eta haiek gainditzeko betebeharra dagoela –masterren kasua da hori–.

Oro har, bi ikasturteetan, NUPeko ikasleen kopurua ehuneko bat inguru gutxitu da.

Honakoa da lizentziaturak eta diplomaturak (1. eta 2. zikloak) desagerrarazteko eta haien ordez gradu-ikasketak ezartzeko onetsi den egutegia:

Tituluak	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014
Maisu-maistra	2.a eta 3.a	3.a			
Diplomaturak	1.a, 2.a eta 3.a	2.a eta 3.a	3.a		
Lizentziaturak	1.tik 4.era	2.a, 3.a eta 4.a	3.a eta 4.a	4.a	
Ingeniaritzak	1.tik 5.era	2.a, 3.a, 4.a eta 5.a	3.a, 4.a eta 5.a	4.a eta 5.a	5.a

Ikus daitekeen bezala, 2013-2014 ikasturtean, ikasketa horiek behin betiko azkenduko dira. Horrek ez dakar berarekin haietan matrikulatutako ikaslerik ez egotea.

- Ikasgaiak.

2009-2010 ikasturtetik 2011-2012 ikasturtera ikasgaiak honako bilakaera izan dute:

Ikasgaiak	2009-2010	2010-2011	2011-2012
Ikasgai kopurua, guztira	1.294	1.414	1.429
Ingelesez irakasten diren ikasgaiak, guztira	44	91	107
Ingelesez irakasten direnek guztizkoan zenbat egiten duten	3	6	7
Euskaraz irakasten diren ikasgaiak, guztira	168	218	199
Euskaraz irakasten direnek guztizkoan zenbat egiten duten	13	15	14

Ikasgai kopuruan ikusten den igoeraren arrazoia da, funtsean, ikasketen bi tipologia horiek (zikloak eta graduak) batera gertatzen direla.

Ingelesez irakasten diren ikasgaiak bi halako baino gehiago dira, eta guztira irakasten direnen ehuneko zazpi dira; euskarazko ikasgaiak egonkorrago mantentzen dira, eta azken ikasturtean ehuneko 14 dira.

- Matrikulatutako ikasleak.

Berezko tituluak kontuan hartu gabe, hurrengo taulan erakusten dugu matrikulatutako ikasleek nolako bilakaera izan duten.

Matrikulatutako ikasleak	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13 ikas-
1. eta 2. zikloa. Lizentziaturak eta diplo-	7.079	5.138	3.520	1.986
Gradua	293	2.150	3.537	4.957
Orain artekoa, guztira (A)	7.372	7.288	7.057	6.943
Adierazlea	100	99	96	94
Masterra	597	664	670	627
Doktoregoa	270	275	290	296
Orain artekoa, guztira (B)	867	939	960	923
Adierazlea	100	108	111	106
Guztira (A+B)	8.239	8.227	8.017	7.866
Adierazlea	100	100	97	95

(b) Behin-behinekoak

Bi ikasturteen artean, ziklo eta graduetan matrikulatutako ikasleen kopuruak ehuneko sei egin du behera. Behera egite hori aztertutako ikasturte guztietan ikusi da; aitzitik, master eta doktorego ikasketetan eguneko sei egin du gora.

Ikasle horien multzoak ehuneko bost egin du behera.

Master- eta doktorego-ikasketak Iruñeko Campusean izaten direnez, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den ziklo eta graduatan Iruñeko eta Tuterako campusetan matrikulatutako ikasleen xehakapena.

Ziklo eta graduatan matrikulatutako ikasleak	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13 ikasturtea (b)
1. eta 2. zikloak Iruñeko Campusa	6.842	4.976	3.429	1.959
1. eta 2. zikloak Tuterako campusa	237	162	91	27
1. eta 2. zikloak, guztira	7.079	5.138	3.520	1.986
Gradua. Iruñeko Campusa	293	2.060	3.377	4.682
Gradua. Tuterako campusa	0	90	160	275
Gradua, guztira	293	2.150	3.537	4.957
Iruñeko Campusa, guztira	7.135	7.036	6.806	6.641
Tuterako campusa, guztira	237	252	251	302
NUP osoan, guztira	7.372	7.288	7.057	6.943

(b) Behin-behinekoak

Iruñeko ikasleen kopuruak ehuneko zazpi egin du behera; Tuterako ikasleen kopuruak, berriz, ehuneko 27 egin du gora.

Ehunekoei erreparatuta, dena den, 2009/10 ikasturtean, ikasleen ehuneko 97 Iruñeko Campusari atxikitzen zaizkio; 2012/13 ikasturtean, berriz, portzentaje hori ehuneko 96koa da.

Azkenik, irakaskuntzaren adarrari erreparatuta, ikasleen ehuneko 50 inguru Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak adarrari atxikitzen zaizkio; ehuneko 43 Irakaskuntza Teknikoei, eta ehuneko zazpi Osasun Zientziei.

Irakaskuntzaren adarrak	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013
Irakaskuntza teknikoak	3.106	3.070	3.007	2.816
Gizarte zientziak eta zientzia	3.752	3.711	3.585	3.641
Osasun zientziak	514	507	465	486
Guztira	7.372	7.288	7.057	6.943

(b) Behin-behinekoak

- Berritik sartzten diren zikloko eta graduako ikasleak.

Logikoa den bezala, berritik sartzten diren ikasleen bilakaera ziklo-ikasketen azkentzeak baldintzaturik dago. Ikus daitekeen bezala, 2009/10 ikasturtea da zikloko ikasle berriak hartzeko ikasle-postuak eskaintzen diren azkena. Hurrengo ikasturteetan, graduako ikasketek hartzen duten protagonismoa.

Ziklo eta graduatan berritik sartzten diren ikasleak	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013 ikasturtea (b)
1. eta 2. zikloa. 1. eta 2. zikloetako planetan sartzten diren ikasleak	1.507			
2. zikloan zuzenean sartzten diren ikasleak	80	135	119	36
Gradua	293	1.889	1.797	2.291
Guztira	1.880	2.024	1.916	2.327
Adierazlea	100	108	102	124

(b) Behin-behinekoak

Berritik sartzten diren ikasleen guztizko kopuruak ehuneko 24 egin du gora.

Haien jatorri geografikoari erreparatuta, ehuneko 85 inguru nafarrak dira; ehuneko 11 inguru Espainiako beste lurralde batzuetakoak dira. Atzerriko ikasleen kopuruari –ehuneko hiru– eutsi egiten zaio. Europakoek eta munduko beste toki batzuetakoek antzeko kopurua egiten dute.

	2009-2010		2010-2011		2011-2012	
	Ikasleak	Ehunekoak	Ikasleak	Ehunekoak	Ikasleak	Ehunekoak
Nafarroa	1.592	84,68	1.717	84,83	1.639	85,54
Espainiako beste lurraldeak	238	12,66	234	11,56	210	10,96
Europa	24	1,28	36	1,78	31	1,62
Munduko beste herrialdeak	26	1,38	37	1,83	36	1,88
Guztira	1.880	100	2.024	100	1.916	100

Soilik 2011-2012 ikasturterako berriak sartzeko graduko ikasleen jatorriari erreparatu gero, ikusiko dugu ehuneko 86 nafarrak direla; ehuneko 11 Espainiako beste lurralde batzuetakoak, eta ehuneko hiru atzerritarrek.

Jatorria	2011-2012 ikasturtea	Ehunekoak
Nafarroa	1.443	86
Aragoi	16	1
Gaztela eta León	16	1
Euskadi	69	4
Errioxa	58	4
Gainerako autonomia erkidegoak	18	1
Europar Batasuna	19	1
Europako gainerako herrialdeak	8	
Munduko beste herrialde batzuk	34	2
Guztira	1.681	100

Azkenik, hurrengo taulan erakusten ditugu lizentziatura eta diplomatura ikasketak utzi eta graduko ikasketetan matrikulatu diren ikasleen kopuruak.

	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013 ikasturtea (b)
Lizentziaturetatik eta diplomaturetatik heldu diren graduatan matrikulatutako ikasleak	16	185	110	122

(b) Behin-behinekoak

• Eskainitako ikasle-postuen eta matrikulatutakoaren arteko erlazioa hurrengo taulan erakusten dugu:

Ikasle postuak	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013
Eskainitako ikasle-postuak	1.905	1.725	1.700	1.760
Matrikulatutako ikasle-postuak	1.735	1.734	1.699	1.780
Matrikulatutakoak/eskainitako ikasle postuak ehunekoak	91	101	100	101

Oharra: Eskainitako kupo orokorreko ikasle-postuak kontsumitzen dituzten matrikulatutako ikasle-postuak hartu dira kontuan.

Eskainitako ikasle-postuen kopurua ehuneko lau jaitsi da. Ikus daitekeen bezala, oro har, eskainitako ikasle-postu guztiak betetzen dira. Halaber, 2009-2010 ikasturteari dagokionez, eskainitako ikasle-postuak ehuneko zortzi gutxiti dira.

Zentroka analizatuta, honakoak dira 2012-2013 ikasturteko datuak:

2012-2013 ikasturtea- Fakultatea/Goi mailako Eskola Teknikoa	Nekazaritza	Telekomunikazioa eta Industria	Osasuna	Ekonomia eta En- presa	Giza eta Gizarte Zientziak	Zientzia Juridikoak
Eskainitako ikasle-postuak	150	570	160	325	440	115
Matrikulatutako ikasle-postuak	130	565	162	354	444	125
Matrikulatutakoak/Eskainitako ikasle postuak ehunekoa	87	99	101	109	101	109

Hau da, ehuneko txikiena ikusten da Nekazaritza Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoan eta Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi mailako Eskola Teknikoan.

- Tituludunen kopurua ondoren erakusten duguna da. Nabarmenezkoa da masterren igoera –ehuneko 26–; lizentziaturek eta graduek, aldiz, ehuneko 11 egin dute behera. Aztertutako al-dian, ez dira oraindik amaitu gradu-ikasketen lehenengo promozioak.

Tituludunak	2009-2010	2010-2011	2011-2012
Lizentziaturak eta diplomaturak	1.386	1.428	1.228
Masterra	286	271	359
Tituludunak, guztira	1.672	1.699	1.587

- NUPen ikasketak uzten dituztenen tasa orokorra, 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetarako, hurrengo taulan erakusten duguna da. Balio desberdinak ezartzen dira, ikasketak uzteari buruz erabiltzen den kontzeptuaren arabera:

Ikasketak uzteari buruzko tasa	2010-2011	2011-2012
A. Ikasketak hasten dituzten ikasleen kopurua	1.717	1.736
B. Ikasketak uzten dituzten ikasleen kopurua	386	282
Titulazioa uzten dutenen tasa (ANECA) (B/A)	22	16
C. NUPen barruan ikasketak aldatzen dituzten ikasleak	171	106
NUPen ikasketak uzten dituztenen tasa (B-C/A)	13	10
D. Titulua utzi eta beste unibertsitate batera joaten diren	80	68
E. EUSa uzten duten ikasleak (B-C-D)	135	108
EUSa uzten dutenen tasa (E/A)	8	6

EUSa: Espainiako Unibertsitate Sistema

Hau da, aplikatutako kontzeptuaren arabera, hiru balio lortuko ditugu ikasketak uzteari buruzko tasarako:

a) Titulazioa uzten dutenen tasak, ANECAren arabera, unibertsitatean ikasketak hasten dituzten ikasleak eta titulazio bakoitzean izaten diren ikasketa-uzteen guztizko gordina erlazionatzen ditu. Ratio horren balioa, aztertutako ikasturteetarako, honakoa izan da: matrikulatu zireneko ikasketak utzi dituzten ikasleen kopurua ehuneko 22tik ehuneko 16ra jaitsi da.

b) NUPeko ikasketak uzteari buruzko tasa; hau da, Unibertsitate Publikoa uzten duten ikasleen guztizkoa, unibertsitatearen barrenean beste ikasketa batzuetara aldatu zirenak alde batera utzita; balio hori ehuneko 13koa izatetik ehuneko 10ekoa izatera pasa da.

c) Espainiako Unibertsitate Sistema (EUSa) uzteari buruzko tasa. Hau da, soilik kalkulatzen da EUSean ikasketak uzten dituzten ikasleekin. Balio hori ehuneko zortitik ehuneko seira jaitsi da.

Horrenbestez, ikusten da aztertutako bi ikasturteetan ikasketak uzteari buruzko tasa jaitsi egin dela, aplikatzen den kontzeptua edozein dela ere.

Hurrengo taulan, aurreko balio horiek erakusten dira, 2011-2012 ikasturtean irakatsitako titulazioen arabera sailkatuta:

2011-2012 ikasturtea. Ikasketak uzteari buruzko tasak.	ANECA uzteari buruzko tasa	NUPen ikasketak uzteari buruzko tasa	EUSEan ikasketak uzteari buruzko tasa
Industria Ingeniaria	22	2	0
Nekazaritzako ingeniaria	38	23	15
Telekomunikazioetako ingeniaria	43	11	8
Soziologiako Lizentziaduna	33	26	11
Ekonomiako Lizentziaduna	23	15	7
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziaduna	20	10	5
Zuzenbideko Lizentziaduna	14	11	6
Maisu-maistra, Haur Hezkuntzako Espezialitatea	3	2	2
Maisu-maistra, Lehen Hezkuntzako Espezialitatea	9	7	7
Maisu-maistra, Atzerriko Hizkuntzako Espezialitatea	9	9	5
Maisu-maistra, Musika Hezkuntzako Espezialitatea	14	9	5
Industriako Ingeniari Teknikoa, Mekanikako Espezialitatea	20	15	6
Industriako Ingeniari Teknikoa, Elektrizitateko Espezialitatea	10	5	5
Telekomunikazioko Ingeniari Teknikoa, Soinu eta Irudiko Espezialitatea	26	16	6
Kudeaketako Informatikako Ingeniari Teknikoa	31	15	12
Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa (Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Ustiategiak)	21	11	11
Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa (Nekazaritza eta Elikadura Industriak)	20	13	7
Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa (Barazkigintza-Frutazaintza eta Lorezaintza)	12	8	4
Lan Harremanetako Diplomaduna	10	10	6
Enpresa Zientzietako Diplomaduna	18	16	10
Erizaintzako Diplomaduna	2	2	2
Gizarte Laneko Diplomaduna	16	15	12
Informatikako Ingeniaria (2. zikloa)	0	0	0
Enpresetako eta Ikasketa Juridikoetako Zuzendaritza	14	2	2
Industriako Ingeniari Teknikoa, Mekanikako Espezialitatea (Tutera)	26	22	17
Fisioterapian Diplomaduna	2	2	2

ANECAREN ikasketak uzteari buruzko tasak unibertsitateko batez besteko balioa zabal gaindizten du –ehuneko 16– Ingeniaritzako, Soziologiako eta Ekonomiako ia ikasketa guztietan.

NUPen ikasketak uzteari buruzko tasa –batez bestekoa ehuneko 10 da– dela eta, nabarmendu behar dugu ehuneko 20 baino gehiago direla Soziologiako, Nekazaritzako Ingeniaritzako eta Tutera Industriako Ingeniaritza Teknikoa (Mekanika) ikasketetan matrikulatutako ikasleak.

Espaniako Unibertsitate Sistema uzteari buruzko tasak –ehuneko sei, batez beste– zabal gaindizten dute Tutera Industriako Ingeniaritza Teknikoko (Mekanika), Nekazaritzako Ingeniaritzako, Gizarte Laneko eta Kudeaketako Informatikako ikasleek.

Ikasketak uztearen arloan, NUPek, Iberus Campusa osatzen duten gainerako unibertsitateekin batera, 2012ko abenduan azterketa bat egin du graduiko ikasketak uzten dituan ikaslearen profilari buruz,

ikasketak uzteko kausa eta arrazoiei buruz eta unibertsitateek gai horri konponbidea emateko, arintzeko eta aurea hartzeko jarraitu beharreko estrategiei buruz.

- Ondoren erakusten dugu NUPeko ikasleen eta NUPek beste unibertsitate batzuetatik, ikasleen trukerako hainbat programaren bitartez, hartutako ikasleen nazioko eta nazioarteko mugikortasuna.

Ikasleen nazioko eta nazioarteko mugikortasuna	2009-2010	2010-2011	2011-2012
Beste unibertsitate batzuetara bidalitako NUPeko ikasleak	320	362	275
NUPek beste unibertsitate batzuetatik hartutako ikasleak	185	215	194

Ikusten den bezala, behera doa NUPek kanpora bidalitako ikasleen kopurua, eta horretan eragina izaten ari dira bai beken zenbatekoa gutxitzeak bai familien egoera ekonomiko zailak.

- Ikasleek irakaskuntzari buruz egiten duten balorazioa.

Balorazio hori egiten da ikasleei egindako inkesten bitartez. Inkesta horiek Tituluaren Kalitatea Bermatzeko Sistemaren atal bat dira. Izan ere, sistema horretan ezartzen dira titulu horiek etengabe hobetzea errazten duten prozedurak eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen kalitatea segurtatzen eta bermatzen duten tresnak. Hiru dira ikasleei egindako inkestak:

a) Ikasleak irakaskuntzarekin ase dauden. Ikasturte bakoitzean egiten da eta harekin ikasgai bakoitzarekin ikaslea ase dagoen neurtzen da.

b) Azken ikasturtean ikasleak jaso duten irakaskuntzarekin ase dauden. Hiru urtez behin egiten da.

c) Laneratzea eta ikasketak hiru urte lehenago bukatu zituzten ikasleen jaso zuten prestakuntzarako asetasuna.

2011ko irailean ikasleen kalitateari buruzko balorazio orokorra egiteko asken ikasturteko ikasleei egin zitzaizkien inkestan, lortu zuten batez besteko puntuazioa 10 puntutik 6,3koa izan zen; ikasketan arabera, nota handiena soziologiako lizentziaturako ikasleek lortu zuten -7,6 puntu- eta txikiena haur hezkuntzako maisu-maistren titulaziokoak -5,1 puntu-. Aurreko inkesta horiei dagokienez, 2005ekoak 6,05 puntuko puntuazio orokorra erakusten zuen; 2008koak, berriz, 6,5 puntukoa.

Honakoak dira urteko azken inkestan, 2012-2013 ikasturteari buruz udaberriko seihilekoan egindakoan, zentroen arabera graduak lortu zituzten emaitzak (balorazio eskala 1etik 4ra bitartekoa da).

Fakultatea/Zentroa	Irakaskuntzaren plangintza	Irakaskuntzaren garapena	Emaitzak	Asetasun orokorra eta iruzkinak
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea.	3,19	3,18	3,09	2,96
Industriako eta Telekomunikazioetako Ingeniaritzako GETa	3,11	3,14	3,05	2,90
Industriako eta Telekomunikazioetako Ingeniaritzako Goi mailako Eskola Teknikoa-Tutera	3,19	3,27	3,13	3,12
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea	3,05	3,02	2,92	2,82
Zientzia Juridikoen Fakultatea	3,08	3,15	3,09	2,97
Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskola	2,97	3,06	2,96	2,66
Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskola-Tutera	3,35	3,30	3,22	2,99
Nekazaritzako Ingeniarrien Goi mailako Eskola Teknikoa	3,17	3,16	3,12	2,98
NUPen batez besteko balioa	3,11	3,12	3,03	2,89

- Ondoren erakusten dugu zenbatekoa den zikloko zein graduko ikasleen kopuruaren eta unibertsitateko langileen artean dagoen erlazioa.

Ratioak	2009	2010	2011	2012
Ikasle/IIL-DOB ratioa	11,93	11,70	11,04	11,44
Ikasle/AZL ratioa	14,86	14,90	14,46	14,37

Horrenbestez, ratio horien balioak behera egiten joan direla termino orokorretan aztertutako urteetan. Ondorioa hauxe da: 2012an, 11 ikasle bakoitzeko IIL-DOB bat dago eta 14 ikasle bakoitzeko AZL bat dago.

- Ikasleko aurrekontu-gastua. Hurrengo taulan erakusten dugu ikasleko aurrekontu-gastua zenbatekoa den, bai ziklo zein gradutan, bai ziklo, gradu eta masterretan ere.

Ziklo eta graduetako ikasleak	2009	2010	2011	2012
Ikasleko aurrekontu-gastua	11.089	11.014	11.100	10.820
Ikasleko gastu arrunta	9.960	9.997	10.141	9.844
Ikasleko gastu arrunta ikerketarik gabe	8.671	8.770	8.908	8.563
Ziklo, gradu eta masterretako ikasleak	2009	2010	2011	2012
Ikasleko aurrekontu-gastua	10.259	10.095	10.138	9.924
Ikasleko gastu arrunta	9.214	9.162	9.262	9.029
Ikasleko gastu arrunta ikerketarik gabe	8.022	8.037	8.136	7.853

a) Ziklo eta graduen kasuan, ikasleko guztizko aurrekontu-gastuak ehuneko bi egin du behera; gastu arruntak, berriz –guztizkoak zein ikerketarik gabekoak– ehuneko bat egin du behera.

b) Masterretako ikasleak sartzen baditugu, ikasle bakoitzeko guztizko aurrekontuak ehuneko hiru egin du behera; portzentaje hori ehuneko bira jaisten da baldin eta soilik gastu arruntari erreparatzen badiogu, ikerketarekin nahiz ikerketarik gabe.

III.4. AURREKONTU-MAGNITUDEEN ETA MAGNITUDE EKONOMIKO-FINANTZARIOEN BILAKAERA (2009tik 2012ra)

Hurrengo taulan unibertsitatearen adierazle eta magnitude nagusiak erakusten ditugu 2009tik 2012ra doan aldirako. Haiek aztertuta, honakoa azpimarratu behar dugu:

Magnitudeak eta adierazleak	2009	2010	2011	2012
Aurrekontu-gastuak, guztira	81.751.341	80.273.063	78.335.450	75.126.187
Langile-gastuak	52.345.453	52.064.159	51.594.826	49.827.968
Langile gastuek guztizkoan egiten duten ehunekoa	64	65	66	66
Funtzionamendu-gastuak	73.423.717	72.858.298	71.564.082	68.347.939
Inbertsioetan egindako gastua	8.327.624	7.342.780	6.645.503	6.686.096
Gastu finantzarioak	9.602	11.567	15.197	14.975
Kapital transferentziak			48.879	62.193
Finantza-aktiboak		60.000	65.000	3.000
Finantza-pasiboak		11.985	11.985	11.985
Aurrekontuko diru-sarrerak, guztira	78.918.066	82.659.698	79.652.402	71.050.272
Diru-sarrera berekiak	14.232.537	12.890.972	13.185.942	13.352.689
Matrikularen bidezko diru-sarrek diru-sarreraren guztizkoan egiten duten ehunekoa	11	10	11	14
Diru-laguntzen bidezko sarrerak	64.445.829	69.768.726	64.328.377	57.603.382
Diru-laguntzen mendekotasunaren ehunekoa	82	84	81	81
Finantza-pasiboak	239.700		2.138.083	94.201
Urteko emaitzak				
Aurrekontu-saldo ez finantzarioa (Diru-sarreraren eta gastuen 1etik 7ra)	-3.080.187	2.451.408	-751.358	-4.156.132
Diruzaintza-gerakina	14.781.774	16.919.105	17.940.787	14.638.042
Diruzaintzako atxiki gabeko gerakina	2.900.494	4.957.454	4.884.426	5.114.587
Ekonomia- eta ondare-emaitza	-5.623.708	1.186.980	-2.508.524	-4.426.896
Enpleguak				
AZL kopurua	496	489	488	483
IIL kopurua	920	915	930	878
IIL-DOB kopurua	617	623	639	607
IIL-DOB/AZL ratioa	1,25	1,27	1,31	1,26
Titulazioak eta ikasle-postuak				
Eskainitako 1. eta 2. zikloko titulazio ofizialen kopurua	24	24	20	8
Eskainitako graduoko titulazio ofizialen kopurua	2	16	16	18
Eskainitako ikasle-postuak, guztira	1.835	1.725	1.700	1.760
ikasleak				
Ikasle kopurua, guztira (1. eta 2. zikloa + gradua)	7.372	7.288	7.057	6.943
Ikasle kopurua, guztira (1. eta 2. zikloak + gradua + masterrak + doktoregoa)	8.239	8.227	8.017	7.866
Ikasle guztiak (zikloak + gradua)/IIL-DOB ratioa	11,93	11,70	11,04	11,44
Ikasle guztiak (zikloak + graduak)/ALZ ratioa	14,86	14,90	14,46	14,37
Ikasle guztiak (zikloak + gradua + masterrak)/IIL-DOB ratioa	12,89	12,76	12,09	12,47
Ikasle guztiak (zikloak + graduak + masterrak)/ALZ ratioa	16,07	16,26	15,83	15,67

- 2009tik 2012ra aurrekontu-gastuek ehuneko zortzi egin dute behera. Langile-gastuak ehuneko bost jaitsi dira, eta guztizko gastuaren ehuneko 65 egiten dute. Ikusten da, halaber, funtzio-namendu gastuei ehuneko zazpian eutsi zaiela; inbertsioek, aldiz, ehuneko 20 egin dute behera.

- Aztertutako aldiaren, inbertsioek ehuneko hamar egin dute behera. Jaitsiera horren azalpena dira, funtsean, transferentzien bidez lortutakoak dira -6,8 milioi gutxiago; hau da, ehuneko 11-, zeren eta diru-sarrera berekiak -funtsean, matrikulak- ehuneko sei baino ez baitira jaitsi -0,8 milioi gutxiago-. Gainera, matrikulen bidezko diru-sarrera horiek garrantzi espezifiko handiagoa hartzen joan dira unibertsitateko diru-sarreraren egiturari, zeren eta 2009an ehuneko 11 izatetik 2012an ehuneko 14 izatera pasa baitira.

- Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 4,16 milioi negatiboa da 2012an. Horrek erakusten du diru-sarrera ez finantzarioak ez direla nahikoak izaera bereko gastuak finantzatzeko. Aztertutako lau urteetatik hirutan magnitude hori negatiboa da.

- Diruzaintzako guztizko gerakina positiboa da, eta lau ekitaldietan 15-16 milioi ingurukoa da. Atxiki gabeko gerakina ere positiboa da lau urteetan, eta 2012an 5,11 milioikoa izatera iristen da. Diruzaintzako gerakina hurrengo ekitaldiko aurrekontua zuzenean finantzatzeko erabiltzeko joerari eusten zaio; erabilera hori dela eta, unibertsitatearen maniobrarako tarte finantzarioa edo likidezia pixkanaka gutxitzen joan da. Hala eta guztiz ere, gerakin likidoa 3,8 milioi ingurukoa da 2012an. Hurrengo taulan ikus daiteke magnitude horien bilakaera:

Diruzaintza-gerakina	2009	2010	2011	2012
Gerakina, guztira	14.781.774	16.919.105	17.940.787	14.638.042
Atxikitako gerakina	11.881.280	11.961.651	13.056.361	9.523.454
Atxiki gabeko gerakina	2.900.494	4.957.454	4.884.426	5.114.587
Hurrengo urteko aurrekontuaren finan-	913.500	1.490.245	1.693.767	1.335.589
Diruzaintza-gerakin likidoa	1.986.994	3.467.209	3.190.659	3.778.998

- Epe luzeko zorpetzeari dagokionez, hurrengo taulan erakusten dugu haren bilakaera:

Epe luzeko zorpetzea	2009	2010	2011	2012
FEDER mailegua, bi ikerketa-proiektutarako	227.715	215.730	203.745	203.745
Innocampus Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mailegua			1.004.348	1.004.348
Nafarroako Gobernuaren mailegua (Nazioarteko Bikaintasun Campusa)			970.150	970.150
FEDER-ren Innpacto programako aurrerakin itzulgarriak			388.083	482.285
Epe luzeko zorra, guztira	227.715	215.730	2.566.326	2.648.543

Hau da, zorpetzea aztertutako aldiaren areagotzen bada ere, zehaztu beharra dago haren jatorria funtsean ikerketarako lortutako lagapen eta finantzaketa-hitzarmenen bitartez lortutako mailegu eta aurrerakinetan dagoela. NUPek Espainiako unibertsitate saneatuenetako bat izaten jarraitzen du.

- NUPeko langileen eta ikasleen 2009tik 2012rako bilakaerari begiratuz gero, ikusiko dugu, laburbilduz, aldi horretan ALZen kopuruak ehuneko hiru egin duela behera, baina IIL-DOBen kopuruak, aldiz, ehuneko bi egin duela behera, eta graduko zein zikloko ikasleen guztizko kopurua ehuneko sei jaitsi dela; masterretako eta doktoregoko ikasleak sartuz gero, jaitsiera ehuneko bostekoa da.

Ondoren, aurreko iruzkinak osatuko ditugu arlo batzuen azterketa zehatzarekin:

a) Inbertsioetan egindako gastua.

Ondoren erakusten ditugu inbertsioetan egindako gastuaren xehetasunak eta bilakaera.

Inbertsioetan egindako gastua	2009	2010	2011	2012
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	2.487.533	1.401.055	1.857.851	1.662.734
Makineria, instalazioak eta tresneria	9.553	9.035		9.229
Garraio-osagaiak		90.941		
Altzariak eta lanabesak	477.850	381.926	244.175	131.695
Informazio prozesuetarako ekipamenduak	487.717	292.924	245.024	204.352
Proiektu konplexuak	2.382.782	1.370.798	1.266.522	1.400.952
Funts bibliografikoak	1.887.180	1.869.995	1.752.677	1.784.594
Proiektuetan eta ikerketa-kontratuetan egindako inbertsioak		1.041.432	698.505	706.498
Patenteak	14.829	31.505	41.181	28.045
Aplikazio informatikoak	105.501	71.395	30.502	14.516
Informazio sistemen plan integrala	474.679	781.774	509.067	743.481
6. kapitulua, guztira	8.327.624	7.342.780	6.645.503	6.686.096
Adierazlea	100	88	80	80

Gastu honi buruz ondokoa esan behar dugu:

- 2012an “eraikinetan” egindako inbertsioek 1,66 milioi egin dute guztira; ia guztiak Iruñeko campusean egin dira. Inbertsio horiek finantzatu dira unibertsitatearen beraren funtsekin, gastu horietarako ez baitzegoen inongo zenbatekorik sartuta Nafarroako Gobernuarekiko finantzaketa-hitzarmenean. Hurrengo taulan erakusten dugu zein den eraikinetan egindako inbertsioen eta Nafarroako Gobernutik jasotako finantzaketaren bilakaera, 2010etik 2012ra:

Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	2010		2011		2012	
	Zenbatekoak	Nafarroako Gobernuaren finantzaketaren ehunekoa	Zenbatekoak	Nafarroako Gobernuaren finantzaketaren ehunekoa	Zenbatekoak	Nafarroako Gobernuaren finantzaketaren ehunekoa
Iruña	727.304	84	1.706.804	0	1.659.594	0
Tutera	673.751	100	151.047	66	3.140	0
Guztira	1.401.055	91	1.857.851	5	1.662.734	0

- “Proiektu konplexuen” barruan sartzen dira, funtsean, irakaskuntzarako eta ikerketarako ekipamenduak. Hurrengo taulan ikusten den bezala, gastu hori nabarmen jaitsi da irakaskuntzaren arloan; bitartean, ikerketarako ekipamenduak gora egin du xede horretarako Nazioarteko Bikaintasun Campusetik jasotako diru-laguntzak tarteko.

Proiektu konplexuak	2010	2011	2012
Irakaskuntzarako ekipamendua	1.203.274	770.363	555.843
Ikerketarako ekipamendua	141.503	115.037	73.080
Nazioarteko Bikaintasun Campusaren ikerketarako ekipamendua INNOCAMPUS		325.599	444.412
Sailaren inbertsioak, proiektuen araberrakoak	25.725	55.523	39.003
Ekitaldiko proiektuak eta lanak, inbertsioak	296		
Guztira	1.370.798	1.266.522	1.112.338

• “Funts bibliografikoetan” gastuaren ehuneko 80 baino gehiago zentratzen da aldizkari zientifiko-koen harpidetzetan, ondoren ikusten den bezala:

Funts bibliografikoak	2010	2011	2012
Aldizkariak	1.443.022	1.483.604	1.492.400
Antzinako funts bibliografikoak	17.133	11.653	7.365
Liburuak	376.078	237.064	263.871
Ikerketarako azpiegitura diren liburuak	33.762	20.356	20.958
Guztira	1.869.995	1.752.677	1.784.594

• “Informatikaren” arloan, gastuak antzeko terminoetan jarraitzen du. Daukan garrantzi espezifikoa dela eta, plan integralaren exekuzioa nabarmendu behar da.

Informatika	2010	2011	2012
Informazio prozesuetarako ekipamenduak	292.923	245.024	204.352
Aplikazio informatikoak	71.395	30.502	14.516
Informazio sistemen plan integrala	781.774	509.067	743.481
Guztira	1.146.092	784.593	962.349

Ekipamenduetarako egun dauden zuzkidurei dagokienez, hurrengo taulan erakusten da zein diren haien osaketa eta bilakaera:

Aleak	2010	2011	2012
Eramangarriak	1.069	1.137	1.181
Zerbitzariak	100	105	131
Mahai gaineko PCak	4.899	5.037	4.994

• Azkenik, NUPek garatzea aurreikusita zeukan Inbertsio Plana (2012-2017), Nafarroako Gobernuarekin negoziatzeotan eta onestekotan dagoena, honakoa da:

Inbertsio plana	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira
Sarioko 6. modu-	510.000	801.633	1.146.122	1.051.686	1.503.303	794.402	5.807.146
Gelategia handi-	450.000	633.230	657.772	557.369			2.298.372
Fisioterapia (Tu-		450.000	962.568	439.737			1.852.305
Urtea, guztira	960.000	1.884.863	2.766.463	2.048.792	1.503.303	794.402	9.957.822

Horri dagokionez, Sarioko obrak nabarmendu behar ditugu. Haien xedea da eraikin horretan jartzea etorkizuneko Doktoregoko Ikasleen Eskola zentralizatzea. Obra hori, izan ere, gerazita dago finantzaketa falta delako.

b) Tuterako campusa. Tuterako campusari dagokionez, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

Tuterako campusean lehen zikloko bi titulazio ofizial irakasten dira, biak ere desagertzeko direnak –Fisioterapiako diplomaduna eta Ingeniaritza Tekniko Mekanikoko diplomaduna (Industria-diseinuko espezialitatea)–, eta Fisioterapiako eta Diseinu Mekanikoko Ingeniaritzako bi gradu berri.

Ikasketa horiek egiten dituzten ikasleen kopuruak ehuneko 20 egin du gora aztertutako aldiari, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tuterako campuseko ikasleak	2010-2011 ikasturtea	2011-2012 ikasturtea	2012-2013 ikasturtea (b)
Fisioterapiari diplomaduna	114	56	6
Fisioterapiako gradua	48	97	179
Industria-ingeniaritza tekniko mekanikoa; industria-diseinuko sakontzea	48	35	21
Diseinu mekanikoko ingeniari-tzako gradua	42	63	96
Tuteran, guztira	252	251	302

(b) Behin-behinekoak

Logikoa den bezala, antzinako titulazioetako ikasleen kopuruak behera egin du, titulazio berri-
etakoak gora egin duen aldi berean. Hala eta guztiz ere, ikasleen guztizko kopuruak ehuneko 20 egin du gora.

Ikasle horien jatorri geografikoa, 2011-2012 ikasturteari dagokionez, hauxe da:

Jatorri geografikoa 2011-2012 ikasturtea	Guztira	Nafarroa	Espainiako gainerako lurraldeak	Europa	Munduko beste he- rialde ba- tzuk
Fisioterapiari diplomaduna	56	19	37		
Fisioterapiako gradua	97	36	59	1	1
Industria-ingeniaritza tekniko me- kanikoa; industria-diseinuko sa- kontzea	35	28	5	2	
Diseinu mekanikoko ingeniari- tzako gradua	63	49	11	1	2
Guztira	251	132	112	4	3

Hau da, batez beste, ehuneko 53 Nafarroatik heldu dira; titulazioaren arabera, Fisioterapiari,
ikasleen ehuneko 36 nafarrak dira. Ingeniaritzan, ehuneko 79 dira nafarrak. Ikasleen ehuneko
hiru atzeritarrak dira.

Ez dago azterlanik Tuterako campuseko titulazio berri-
buruzko aurreikuspenen gainean.

Tuterako campusari esleitutako gastu arrunta eta inbertsio-gastua, 2010etik 2012ra doan al-
dian, hurrengo taulan ageri dena da. Abiapuntua da kostuen kontabilitate-sistema finkatzen ez
den bitartean, ezinezko gertatzen dela campus horri egozteko unibertsitateko zerbitzu zentraletatik
heldutako gastu arruntak eta zeharkako gastuak.

Ekitaldia	Gastu arrunta	Inbertsioak	Guztira
2010	2.060.048	1.200.532	3.260.580
2011	2.287.139	457.882	2.745.021
2012	2.221.984	194.397	2.416.381

Nabarmen gutxiti da inbertsioetako gastua, funtsean Nafarroako Gobernuaren finantzaketa
falta delako. Gastu arruntak ehuneko zortzi egin du gora; hala eta guztiz ere, zenbateko horretan
ez da sartzen unibertsitateko zerbitzu zentraletatik heldu diren gastu arruntak eta zeharkako gas-
tuen egozketa.

Langileriaren osaketa eta langile-gastuak hurrengo taulan azaltzen dira:

Tuterako campuseko langileak	2010		2011		2012	
	Langile-kopurua	Diru-kopurua	Langile-kopurua	Diru-kopurua	Langile-kopurua	Diru-kopurua
IIL funtzionarioa	9	222.495	10	330.552	14	411.919
IIL kontratatua	43	426.195	49	502.548	56	473.187
IIL guztira	52	648.690	59	833.100	70	885.107
AZL guztira	13	409.085	14	406.184	14	426.752
Guztira	65	1.057.775	73	1.239.284	84	1.311.859

IILak: Irakasle aritu diren langile guztiak sartzen dira. Batzuetan, irakasle-lan hori Tuterako eta Iruñeko campusetan gauzatzen dute.

Ondorio nagusi gisa, eta kontuan hartuta irakasleen eta ikertzaileen kasuan haien irakaskuntza-dedikazioaren kostua bakarrik egozten dela, hauek azpimarratzen ditugu:

- Tuterako campusari atxikitako pertsonen kopuruak ehuneko 29 egin du gora –funtsean IILei dagokienez, zeren eta ehuneko 18 egin baitute gora–; izan ere, AZLen kopuruak 14 ingurukoa izaten jarraitzen du. Langile gastuak ehuneko 24 inguru egin du gora.

- Irakasleen eta ikertzaileen artean, nabarmentzeko da langile kontratatuen kopurua; izan ere, kontratatuen kopurua ia lau aldiz handiagoa da funtzionarioen kopurua baino. Bi dira horren arrazoi nagusiak: funtzionarioak campusera ekartzeko zailtasuna, eta irakasteko premiazko beharrak.

c) Universidad Sociedad Fundazioa.

Hurrengo tauletan Universidad-Sociedad Fundazioari buruzko informazio batzuk erakusten ditugu, abiapuntutzat hartuta 2012ko datuak behin-behinekoak direla.

Fundazioaren arloen eta jardueren araberako gastua hurrengo taulan garatu dugu. Ikusten den bezala haren ia ehuneko 75 enpleguaren arloan kontzentratzen da.

Arloen/jardueren araberako gastua	2010	2011	2012
Enpleguaren arloa	5.041.826	4.954.651	5.787.591
Prestakuntzaren arloa	590.377	737.870	590.611
Hizkuntzen goi mailako zentroa	966.631	953.822	865.001
I+G sustatzailea	83.897	72.437	63.368
Nazioarteko sustapena Txinan			30.601
Alumni programa			31.284
Zuzeneko gastuak, honaino	6.682.731	6.718.780	7.368.456
Zeharkako gastuak	300.957	343.327	338.072
Fundazioaren gastuak, guztira	6.983.688	7.062.107	7.706.528

Enplegatuen batez besteko kopuruak 45 langile ingurukoa izaten jarraitzen du.

Enplegatuak	2010	2011	2012
Enplegatu kopuruaren batez bestekoa	44	47	45

Diru-sarreretan, nabarmentzekoak dira beken bidez lortutakoak; izan ere, guztizko diru-sarreraren ehuneko 65 egiten dute. Matrikuletatik eta ikastaroetatik heldutakoak ehuneko 16 dira.

Diru-sarrerak	2010	2011	2012
1. Entitateak bere jardueraren ondorioz dituen diru-	7.091.156	7.017.709	7.643.628
Erabiltzaile eta afiliatuen kuotak (matrikulak, ikastaroak eta Bekak	1.201.987	1.339.541	1.245.722
Enpresek bekadunen gizarte segurantza dela-eta egindako Praktiken kudeaketa eta lan eskaintzak	4.508.894	4.299.335	5.028.234
Diru-laguntzak, dohaintzak eta ustiapen-legatuak, jarduerari berari atxikitako ekitaldiko emaitzei egotziak (babesle-	0	27.021	165.027
Mandatuaren aplikazioa	587.475	613.793	521.797
Bestelako diru-sarrerak	176.105	241.966	223.820
Mandatuaren aplikazioa	600.009	461.221	412.953
Bestelako diru-sarrerak	16.686	34.832	46.075
3.- Ustiapeneko bestelako sarrerak.	2.538	1.497	4.103
4.- Sarrera finantzarioak.	26.520	52.901	58.797
Diru-sarrerak, guztira	7.120.214	7.072.107	7.706.528

Hurrengo taulan babesletzaren bidezko diru-sarrerak xehakatzen dira. Ikusten da diru-sarrera horiek Fundazioaren guztizko diru-sarreraren ehuneko hiru inguru egiten dutela eta haien ehuneko 77 inguru Nafarroako Gobernutik heldu direla.

Babesletzaren ondoriozko diru-sarrerak	2010	2011	2012
Administrazio publikoak (Nafarroako Gobernu- nua)	126.041	193.657	171.780
Beste sektore batzuk	50.064	48.309	52.040
Babesletza, guztira	176.105	241.966	223.820
Ehunekoa, diru-sarreraren kopuru osoaren gainean	2,47	3,42	2,90

Fundazioari enkargatutako jardueren multzoak unibertsitateari dakarkion gastua 0,4 milioi ingurukoa da; haren zatirik handiena hizkuntzei dagokie.

Unibertsitatearentzako kostua	2010	2011	2012
Enplegua	-84.384	-42.800	-13.352
Prestakuntza	25.190	-56.728	-54.692
Hizkuntzak:	438.590	440.484	345.099
I+G zentrorako laguntza	84.087	80.265	70.676
Nazioarteko sustapena		30.000	30.769
Alumni programa			34.453
Kostu osoa Unibertsitatearentzat	463.483	451.221	412.953

Azkenik, 2011-2012 ikasturtera arte, honakoak dira fundazioak kudeatzen dituen **berezko ikasketei** buruzko datu nagusiak:

- Berezko ikasketak dira unibertsitate bakoitzak bere unibertsitate-autonomiaren arabera antolatzen dituen ikasketak, betiere hezkuntza-eredu arinagoa, aniztasun handiagokoa eta malguagoa sortuz; izan ere, eredu horrek aukera ematen du berriaz ikasketa ofizialek jasotzen ez dituzten jakintzaren esparruak osatzeko; azken batez, titulazio homologatuen prestakuntza gehigarri mota bat da, Nafarroako eragile ekonomikoetara lotua (enpresak, profesionalak, administrazioa eta abar); haren bidez, batetik, erraztasunak ematen dira ikasleek enplegua aurkitzeko baldintzetarako, eta, bestetik, jada lanean ari direnen etengabeko prestakuntzarako. Ikasketa horiek gainditzeak berarekin dakar NUPen kasuko titulua lortzea: funtsean, berezko masterrak, espezializazio diploma, unibertsitateko aditua edo espezializazio ikastaroa.

• Berezko ikasketen bilakaera (berezko tituluak eta espezializazio ikastaroak) honako bilakaera izan du aztertutako lau ikasturteetan:

Adierazleak	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012
Berezko ikasketetako ikastaroen kopurua	6	8	12	24
Irakastorduen kopurua	1.443	2.072	2.290	2.820
Matrikulatutako ikasle kopurua	144	228	290	374

Hau da, aztertutako adian, ikastaroen kopurua lau halako bilakatu da; irakaskuntza-orduak bi halako bihurtu dira eta ikasleen kopurua ia hiru halako bihurtu dira.

• 2011-2012 ikasturtean zentratuta, honakoak nabarmentzen ditugu alderdi aipagarrien gisara:

- a) Eskaintako ikastaroen ehuneko 83 eman dira; hau da, bost ikastaro kendu dira soilik.
- b) NUPeko sailen arabera, ikastaroen eskaintzarik handiena dutenak Enpresen Kudeaketa-rena –bederatzi ikastaro– eta Zuzenbide Publikoarena dira –sei ikastaro–.
- c) Irakastorduetatik ehuneko 39 NUPeko langileek eman dituzte eta ehuneko 61 unibertsitatez kanpoko irakasleek.
- d) Ikasleen ehuneko 34 inguruk 25 urte baino gutxiago daukate; ehuneko 58 emakumezkoak dira, eta ehuneko 92 espainiarrak dira.
- e) Matrikulatu diren ikasleen ehuneko 41 NUPen bertan ikasketak egindakoak dira.
- f) Ikasleak irakasleekin eta lortutako prestakuntzarekin daukaten asetasun maila zortzi ingurukoa da.
- g) Si ikastarotan kanpoko praktika aldiak eskaini dira enpresa edo erakundeetan – 77 postu eskaini dira–; praktika aldien batez besteko iraupena zazpi hilabetekoa da, eta ia kasu guztietan lansaripekoak izan dira. 2013ko apirilean, praktika aldi horietatik 58 amaitu dira. Enpresetako lanera-tzea ehuneko 40 ingurukoa izan da.

Azken batean, aurreko datuek erakusten dute zeinen garrantzitsua den irakaskuntza-tresna hori laneratzerako edo/eta jasotako prestakuntza gaurkotu eta zabaltzeko eta espezializatu eta birziklatzeko. Unibertsitatearen eta Nafarroako eragile ekonomikoen arteko lankidetzaren adibide bat da.

III.5. NUPek ZER TOKI BETETZEN DUEN HAINBAT UNIBERTSITATE-RANKINGETAN

Txosten hau osatze aldera, ondoren Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Espainiako gaine-rako unibertsitateak alderatzen dituzte lau ranking jaso ditugu.

Aldez aurretik, nabarmendu beharra dago ezen, kudeaketari buruzko txostenean adierazi be-zala, Nafarroako Unibertsitate Publikoa unibertsitate txikia eta nahiko gaztea dela, eta haren ira-kaskuntza-profila funtsean teknikoa dela. Halaber, prestakuntza hutsak dauzka giza zientzietan eta osasunaren zientzietan. Ezaugarri horiek eragin handia daukate Espainiako unibertsitateen artean lortzen duen tokian; hala eta guztiz ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, tradizionalki, ongi kokaturik ageri da ikasle bakoitzeko adierazle finantzarioei eta giza baliabideei eta baliabide materialei buruzko rankingetan.

1. Shanghaiko Rankinga, Espainiako unibertsitateei egokitua (2013ko edizioa).

Domingo Docampok prestatutako ranking horretan –Shanghaiko Rankingaren irizpideak Espai-niako unibertsitateei egokitzen dizkio–, funtsean honakoak balioesten dira: Nobel sariak daukaten graduatuen eta akademikoen kopurua, asko aipatzen diren egileen kopurua, argitaratu eta aurkibidee-tan jaso diren artikuluen kopurua eta lanaldi osoaren pareko dedikazioa duten irakasleen kopurua.

Ranking horrek ikerketarekin lotutako parametroak hartzen ditu kontuan, batez ere. Erabiltzen di-tuen adierazle guztietatik, soilik batek hartzen du kontuan erakundearen tamaina. Gainerako guztiek produktibotasun absolutua neurtzen dute, halako moduz non baieza baitaiteke ezen, orokorrean, adierazle horretan unibertsitate handiek balio altuagoak lortzen dituztela.

2013ko edizioan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 42. tokoa betetzen du Espainiako uniber-sitate publiko eta pribatuen guztizkoan; 2012ko edizioko tokiari eusten dio. 4,8 puntu dauzka, eta Espainiako lehenengo unibertsitateak, berriz, 16,5 puntu dauzka; azkenak, berriz, 0,9 puntu.

Unibertsitate Publikoaren puntuazioa aurkibideetan jasotako artikuluetatik eta irakasle balioki-deetatik heldutakoa da.

2. I-UGR Rankinga, Espainiako unibertsitateena, Campusaren eta zientzia diziplinen arabera-koa.

Ranking hau oinarritzen da eragin eta ikusgarritasun handietan duten nazioarteko aldizkarie-tan argitaratutako ikerlanetan, eta 12 arloren arabera eta 38 zientzia-diziplinaren arabera antola-tzen da. Denboraren araberako serie zabalak erabiltzen dira: hamar urteko epe bat (2003-2012) eta bost urteko epe bat (2008-2012), emaitzei egonkortasuna emateko eta jarduera zientifikoan gerta daitezkeen aldaketak detektatu ahal izateko.

Edizio honetan, zeinean Espainiako 62 unibertsitate publiko eta pribatu baitaude, NUPek ho-nako tokia lortu du:

a) Zientzia arloen arabera:

Zientzia arloa	NUPek 2003-2012 epean betetako tokoa	NUPek 2008-2012 epean betetako tokoa
Ingeniaritzak	22	31
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia	28	23
Ekonomia, enpresa eta negozioak	28	27
Bestelako gizarte zientziak	27	35
Matematika	32	35
Fisika	33	34
Psikologia eta hezkuntza	35	40
Nekazaritza zientziak	40	38
Zientzia biologikoak	38	42
Kimika eta ingeniari-tza kimikoa	39	39
Lurraren eta ingurumenaren zientziak	41	41
Medikuntza eta farmazia	43	43

NUPen indargune handienak ingeniari-tzen, informazioaren eta komunikazioen teknologien eta ekonomia eta enpresaren arloetan daude.

b) Zientzia diziplinen arabera:

Diziplina	NUPek 2003-2012 epean betetako tokiak	NUPek 2008-2012 epean betetako tokiak
Geografia eta hirigintza	6	19
Ingeniaritza elektrikoa eta elektronikoa	8	13
Industria ingeniariatza	8	25
Errehabilitazioa eta fisioterapia	13	9
Telekomunikazioak	10	12
Soziologia	17	11
Zientzia politikoa	16	14
Estatistika	28	18
Ekonomia	18	
Jarduera fisikoa eta kirola	25	22
Diziplina anitzekoa	27	22
Mikrobiologia eta biologia	22	32
Informatika	29	25
Enpresa	25	26
Ingeniaritza kimikoa	28	26
Landareen eta animalien biologia	26	
Psikologia	26	27
Elikagaien zientzia eta teknologia	30	27
Albaitaritza eta abeltzaintza	28	28
Materialen zientziak	34	35
Nekazaritza	38	36
Osasun publikoa	38	36

Nabarmentzekoak dira NUPek honako diziplinetan lortutako tokiak: geografia eta hirigintza, ingeniariatza, fisioterapia, telekomunikazioak eta soziologia.

3. Conocimiento y Desarrollo Fundazioaren (CYD) Espainiako unibertsitateen rankinga (2012ko edizioa).

Ranking horretatik, honakoak nabarmentzen ditugu bereziki:

a) Produkzio zientifikoa: Espainiako goi mailako hezkuntza erakundeen argitalpen zientifikoe-tan oinarritzen da, funtsezko hiru dimentsiori begiratuta: produkzio zientifikoaren guztizko bolu-mena (argitalpenak); haien batez besteko kalitatea, argitaratutako dokumentuen eraginari edo aipamenei buruzko adierazleen arabera; eta erakundeak ikerketaren lidergoa izan duenean, argi-taratutako lanak lan aipatuenean ehuneko 10aren artean egotea, kategoria bakoitzean (lidergoan bikaintasuna lortzeari buruzko portzentajea).

Rankinga 54 unibertsitateri aplikatzen zaie –publikoak eta pribatuak– 2007tik 2011ra doan al-dirako. Hartan sartzen dira 2011n 100 argitaratutako dokumentu baino gehiago sortu dituzten erakundeak.

Aurreko edizioetan ez bezala, ranking honek unibertsitateak hurrenkera alfabetikoan aurkez-ten ditu; eta adierazle bakoitzaren barruan, kuartilen arabera.

Ranking orokorrean, Nafarroako Unibertsitate Publikoa hurrengo kuartiletan agertzen da, kon-tuan izanda adierazlearen hurrenkera beharanzkoa dela:

- Produkzio-bolumenean, 2.103 dokumentu; hirugarren kuartila.

- Eraginean, 1,14; hirugarren kuartila.
- Lidergoan bikaintasuna lortzeari dagokionez, 8,04; lehenengo kuartila.

b) Bertaratzekoak diren unibertsitate publikoen analisi ekonomiko-finantzarioa.

Ezer baino lehen, adierazi beharra dago, Unibertsitateak berak dioen bezala, fundazio honek unibertsitateen artean zuzeneko aurrekontu-adierazleak lortzearen emaitza ez dela homogeen gertatzen, honako arrazoiengatik, funtsean:

- NUPek ikerketa-gastuak gastu arrunten eta inbertsio-gastuen artean xehakatzearen irizpidea erabiltzen du; gainerako unibertsitateek ez dute xehakapen hori egiten.

- Diru-sarrereren barruan, administrazioek egiten duten ahalegina kalkulatzeko aldera, ez dira kontuan hartzen ez kapital-transferentziak, ez zorpetzeko baimenak.

Aurreko lerrokada kontuan izanda, NUPek hurrengo adierazleetan honako tokiak betetzen ditu 2010eko aurrekontuari eta 2010-2011 ikasturteari dagokienez: (47 unibertsitate, guztira)

- Finantza-ahalegina (ikasle bakoitzeko finantzaketa garbia, probintziako per capita erantsitako balio gordinaren gainean) (portzentajea): adierazlearen balioa: ehuneko 39,3; betetako tokia: 28.a.

- Ikasle bakoitzeko transferentzia arrunt publikoak: 9.363 euro; 1. tokia. Ratioaren kalkuluan jasotako transferentzien guztizkoa aplikatuko balitz –transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak– NUP 5. tokian egonen litzateke.

- Ikasleengatik ordaindutako prezio publikoak: 1.732 euro; 13. tokia.

- Ikasleko gastu arrunta: 9.997 euro, 2. tokia. Ikerketa-gastuen xehakapenarekin doituko balitz, NUP 6. tokian egonen litzateke.

- Lanaldi osoaren baliokidea den dedikazioa duten langileen gastua (IIL+AZL) (eurotan): 47.463 euro; 13. tokia. Aurreko doikuntza aplikatuz gero, NUP 34. tokian egonen litzateke.

4. BBVA Fundazioaren eta Instituto Valenciano de Investigaciones Económicas erakundearen Espainiako unibertsitateen rankinga (2013ko edizioa).

Ranking honek unibertsitateak sailkatzen ditu emaitzen bolumenaren arabera zein produktibotasunaren arabera –kontuan izanda, horietako bakoitzaren tamaina– eta irakaskuntzaren, ikerketaren eta berrikuntzaren eta garapen teknologikoaren arabera.

Proiektu honen rankingak egiteko, honakoak adierazten dituzten aldagaiak hautatu dira: hartutako baliabideak, produktzioa, kalitatea eta nazioarteratzea. Adierazle horiek unibertsitateen jardueren hiru dimentsio nagusiak biltzen dituzte: irakaskuntza, ikerketa eta berrikuntza eta garapen teknologikoa.

Bolumenaren araberako emaitzen guztizko bolumenari dagokionez –irakaskuntza, ikerketa eta berrikuntza–, NUPek 42. tokia betetzen du 48 unibertsitateen artean. Tamainaren araberako produktibotasunaren datua sartuz gero, NUPek 14. tokia beteko du.

Aurreko guztizko emaitza aztertutako arloen arabera xehakatu eta emaitzak eta produktibotasuna tamainaren arabera bereiziz gero, honakoak ikusiko ditugu:

- Irakaskuntzaren esparruan, NUP 43. tokian eta 13. tokian dago, hurrenez hurren.
- Ikerketari dagokionez, 44. eta 47. tokietan dago.
- Berrikuntzaren eta garapen teknologikoaren arloan, 21. eta 4. tokietan dago.

Nabarmenezkoa da berrikuntzaren arloan NUP Espainiako unibertsitateen artean 4. tokian dagoela.

IV. AMAIERAKO LABURPENA

Kontuen Ganberak aitortzen du Bologna Plana aplikatzeko prozesuan eta bere kudeaketaren hobekuntzan Nafarroako Unibertsitate Publikoa egiten ari den ahalegina, are gehiago administrazio publikoek eta gizarteak, oro har, egun bizi dituzten baldintza ekonomikoetan.

Kudeaketari buruzko txostenak jasotzen zituen berariazko gomendioen multzotik gehienak edo ezarri dira edo ezartzeko fasean daude. Bereziki nabarmentzekoak dira irakaskuntza antolatzeko planaren jarraipenari eta AZLen kudeaketari buruzkoak. Hala eta guztiz ere, berriz diogu komenigarria dela Unibertsitateak amai dezala kontabilitate analitikoaren sistemaren ezarpena, horren bidez aukera izan dezan zorroztasunez ezagutzeko zerbitzu publikoa ematek heldu diren kostuak eta, horrenbestez, tresna zehatz bat izan dezan bere jardueraren finantzaketa publikoa eta pribatua analizatzeko.

Unibertsitate Publikoa, Espainiako gainerako unibertsitate publikoak bezala, gobernu-moduari eta finantzaketa-ereduari dagokienez, Estatuak emandako oinarrizko araudiaren menpean dago. Aztertutako aldian, ez da inongo lege-aldaketarik onetsi erabakiak hartzeko prozesuan erabiltzen duen eredu burokratiko eta kolegiatutik heldu diren kudeaketa-ahulgune handiei konponbidea emateko.

Finantzaketari dagokionez, nabarmendu behar dugu, batetik, Estatuan araudi berri bat argitaratu dela, zeinak ikasleak ordaintzen duen prezioa zerbitzua emateak daukan kostu efektiboarekin lotzen baitu; eta, bestetik, Nafarroako Gobernuak eta NUPek ez dutela urte anitzeko eredurik finkatu –gutxienez ere aldi baterakoa, Estatuko erreforma egiten ez den bitartean– NUPen egonkortasun eta bideragarritasun finantzarioa bermatzeko eta, horrez gainera, esparru guztietako kudeaketan gardentasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia bultzatzeko: irakaskuntza, ikerketa eta baliabideen kudeaketa. Gabezia horrek eragina du, halaber, inbertsioetarako urte anitzeko planaren egituraketan eta haren finantzaketan.

Gobernuak ez ditu garatu, ezta ere, honako hauei buruzko unibertsitate-lege organikoetan jasotako aurreikuspenak: Unibertsitatearen aurrekontuak garatzea eta betearaztea; urteko kontuen edukia eta aurkezpena; gizarteari kontuak emateko prozesua; eta Gizarte Kontseiluak kudeaketari eta finantzaketari dagokienez bete behar dituen kontrol- eta gainbegiratze-eginkizunak.

Kudeaketari buruzko txostena egin zenetik beste alderdi garrantzitsu batzuk izan dira gobernantza dela-eta: NUPen III. Plan Estrategikoaren onespina eta Ebro Ibarren Nazioarteko Campusaren edo Iberus Campusaren aitortpena, non NUP sartuta baitago beste hiru unibertsitateekin batera.

IILen kudeaketari dagokionez, nabarmentzen dugu NUP 14/2012 Errege Lege-dekretuari egokitu zaiola, irakasleen dedikazio-araubideari dagokionez. Egokitze horrekin, ikerketaren seiurtekoa sartzan da irakaslearen irakaskuntza-ahalmena finkatzeko aldagai nagusien artean; hura finkatzeko baldintzak errazten dira; astean hiru orduko gehienekoa ezartzen da ikerketa dela-eta irakaskuntza-orduak kentzeko, eta adinarengatiko irakaskuntza-gutxitzea kentzen da. Horren emaitza gisa, ikus daiteke 2012/13 ikasturtean nabarmen egin dutela behera beste jarduera batzuetan ematen diren orduak. Horrek berarekin dakar IILek irakaskuntza ordu gehiago izatea eta, horrenbestez, giza baliabide berri gutxiago behar izatea.

Bestalde, Kudeaketari buruzko txostenean jada aipatzen zen bezala, Nafarroako Gobernuak eta Unibertsitateak aztertu edo/eta birplanteatu behar dute IILen ordainsarien tarte autonomikoa dela-eta indarrean dagoen egituratzea, ordainsari horiek unibertsitate-jardueraren beste helburu zehatz batzuk lortzearekin lotzeko eta ez mugatzeko Estatuko ordainsarien egituran jada jasota dauden kontzeptuak ordaintzera.

Unibertsitateak ia amaitu du AZLen araubide juridikoa foru araubideari egokitzeko prozesua.

Langileen presentzia fisikoaren kontrolari dagokionez, zenbait tresna ezarri dira hura bermatzeko, bereziki AZLe dagokienez.

Ikerketaren arloan, nabarmena da asko jaitsi direla hartutako baliabideak, bereziki sektore pribatuarenak, krisi ekonomikoaren ondorioz. Horri dagokionez, komeniko litzateke ikerketa laguntzeko zerbitzuak eta, bereziki, IILek berek baliabide berriak hartzeko lana areagotzea. Bes-

talde, kontabilitate analitikoaren sistema funtzionamenduan jartzearekin lotuta, oraindik ere ez da zehaztu zeharkako kostuen portzentaje doituagorik –unibertsitateak kontratatutako ikerketarengatik berreskuratu beharko lituzkeenak dira kostu horiek–.

2009tik 2012ra doan aldiari buruzko adierazle nagusi gisa, honakoak azpimarratzen ditugu:

- Aurrekontu-gastuek ehuneko zortzi egin dute behera, eta 2012an 75,13 milioikoak izatera iritsi dira. Langile-gastuak ehuneko bost jaitsi dira, eta guztizko gastuaren ehuneko 65 egiten dute. Ikusten da, halaber, funtzionamendu gastuei ehuneko zazpian eutsi zaiela; inbertsioek, aldiz, ehuneko 20 egin dute behera.

- Diru-sarrerek ehuneko 10 egin dute behera aztertutako aldian –71.10 milioi 2012an–. Egoera ori sortu da funtsean, transferentzien bidez lortutakoen ondorioz –6,8 milioi gutxiago; hau da, ehuneko 11–, zeren eta diru-sarrerera berekiak –funtsean, matrikulak– ehuneko sei baino ez baitira jaitsi –0,8 milioi gutxiago–. Gainera, matrikulen bidezko diru-sarrerera horiek garrantzi espezifiko handiagoa hartzen joan dira unibertsitateko diru-sarrereren egituran, zeren eta 2009an ehuneko 11 izatetik 2012an ehuneko 14 izatera pasa baitira.

- Epe horretan, Nafarroako Gobernuak hitzarmen bidez emandako ekarpena 4,2 milioi txikiagoa izan da. 2010eko datuak eta 2012koak alderatuz gero, gutxitze hori 10 milioikoa izan da.

- Diruzaintzako guztizko gerakina positiboa da, eta lau ekitaldietan 15-16 milioi ingurukoa da. Atxiki gabeko gerakina ere positiboa da lau urteetan; eta 2012an, 5,11 milioikoa izatera iritsi da. Diruzaintzako gerakina hurrengo ekitaldiko aurrekontua zuzenean finantzatzeko erabiltzeko joerari eusten zaio; erabilera hori dela eta, unibertsitatearen maniobrarako tarte finantzarioa edo likidezia pixkanaka gutxitzen joaten da.

- Zikloko eta graduiko ikasle bakoitzeko guztizko aurrekontu-gastua 10.820 eurokoa izan da 2012an, eta ehuneko bi jaitsi da; ikasle bakoitzeko gastu arruntak ehuneko bat egin du behera, eta 2012an 8.563 eurokoa da.

- Ikasleen eta NUPeko langileen erlazioari eta haren bilakaerari dagokienez:

- a) IIL-DOBen kopurua ehuneko bi jaitsi da: 617 izatetik 607 izatera.

- b) AZLen kopurua ehuneko hiru jaitsi da: 496 izatetik 483 izatera.

- c) Graduiko zein zikloko ikasleen guztizko kopurua ehuneko sei jaitsi da; 2012an, 6.943 ikaslekoa da. Masterretako eta doktoregoko ikasleak sartuz gero, jaitsiera ehuneko bostekoa da.

- d) Zikloko eta graduiko 11 ikasle bakoitzeko, 2012an, IIL-DOB bat dago; 2009an, berriz, 12 zeuden.

- e) Zikloko eta graduiko 14 ikasle bakoitzeko, 2012an, AZL bat dago; 2009an, berriz, 15 zeuden.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko urriaren 22an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas